3.- En la defensa y promoción del modelo de Democracia Directa de San Sebastián, el Pleno Municipal insta al Gobierno municipal a que, en base a las ideas de autonomía ciudadana y municipal, priorice aquellos instrumentos legales que no precisan ninguna autorización.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20a.

San Sebastián, 20 de mayo de 2016

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:00TAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:00AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:00H, SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:00H.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, prestigio egoeretan euskararen erabilera dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el uso del euskera en situaciones de prestigio.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno,

hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Prestigio egoeretan euskararen erabilera egitea zein garrantzizkoa den gero eta gehiago azpimarratzen da, hizkuntzaren normalizazioari begira. Garrantzi hori are eta gehiago nabarmentzen da gertakizuna haur edo gaztetxoen aurrean izanez gero. Hori ez da uste partikularra, baizik eta orokorra, euskalgintzan onarpen unibertsala duena. Are eta gehiago Udal Gobernuak berak horixe azpimarratu du behin baino gehiagotan. Lekuko, besteak beste, bere programan horrela jaso zuen:

> “Hizkuntzaren balio sinbolikoari eta funtzionalari buruz dugun pertzepzioa oso garrantzitsua da, eta horregatik uste dugu lehentasunezkoa dela gizartean duen ospea sustatzea. Horretarako, erreferentziazko pertsonekin lan egingo dugu, batez ere, nerabe eta gazteentzat erreferenteak direnekin. Helburua: gazteentzat erreferenteak diren pertsonek (musika-esparrukoak, kirol-esparrukoak...) euskaraz hitz egitea, bakoitzak ahal duen moduan.”

Halaber herritarrek aukeratzen duten hizkuntzaren arabera jokatzea administrazioaren betebeharra dela ez dago zalantzarik. Herritarren eskubidea izanik Udalak neurri, arau, konpromiso eta baliabideak horretara jarri ditu; eta jartzen jarraitu beharko du. Aurrekoaren arabera, pare bat aipatzearren, Udal Gobernuak honako

somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 16 de mayo de 2016.

JUSTIFICACIÓN

El uso del euskera en situaciones de prestigio es un hecho cada vez más subrayado de cara a la normalización del euskera. Esa importancia es todavía más patente si la situación se da ante menores o jóvenes. No es una opinión particular, sino general, que tiene una aceptación universal en el ámbito del euskera. Aún más cuando el mismo Gobierno municipal lo ha subrayado en más de una ocasión. Como muestra de ello, entre otros, su programa recogía el siguiente punto:

> La percepción que tenemos sobre el valor simbólico y funcional de la lengua es importante y por eso es primordial reforzar su prestigio social, trabajando con personas de referencia sobre todo entre los y las adolescentes y los y las jóvenes. Objetivo: que personas que son referentes para la juventud (del ámbito musical, deportivo...) se expresen en euskara, cada cual en la medida que pueda.

Del mismo modo, sin lugar a dudas, es un deber de la administración el actuar en función de la lengua por la que opte la ciudadanía. Al ser un derecho ciudadano, el Ayuntamiento ha dirigido sus medidas, normativas, compromisos y medios hacia ese objetivo, y deberá continuar haciéndolo. En función de lo anterior, por mencionar un par de ellas, el Gobierno

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

konpromiso hauek hartu zituen, Udalbatzaren aginduz:

- bermatzea herritarrek hautatutako hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izatea Udal Gobernuko kideen eta beraien arteko harremanetan, bereziki ahozko erabilera egoeretan, eta herritarrek ez dutela hautatutako hizkuntza ofiziala baztertu eta beste hizkuntza batera jo beharrik izango aipatutako harreman horietan. (Udalbatzak onartua 2015eko uztailaren 30ean)

- modua egingo duela Udalak berak edo Udalaren izenean sortutako ikus-entzunezkoak bi hizkuntzetan egongo direla bermatzeko, Udalak onartutako hizkuntza politikak ahalbidetzen eta gomendatzen duenarekin bat. (Udalbatzak onartua, 2016ko otsailaren 25ean)

Alkateak berak langile guztiei luzatutako barne mezu baten bidez onartutako irizpideak jarraitu beharra gogoratzen zuen, eta hitzez hitz honela zioen: “Euskararen normalizazioan administrazioak eredugarri ez ezik eragile ere izan behar du eta langintza horretan ezinbestekoa da arduradun politiko, zuzendari eta langile guztien inplikazioa. Eredutzat hartu behar gaituzte herritarrek”.

Arestian aipatukoak presente, azken hilabeteotan oinarri horien urraketak suertatu direla agertu beharra dago. Hala, behin baino gehiagotan arazoak mahaigaineratu, eta Udal Gobernuaren ordezkaritzaren promesez fido izan gara, akatsak halakotzat aitortu eta konpontze bidean jartzeko hitza eman izan duenean. Aldiz, hilabetez hilabete urraketak

municipal hizo suyos los siguientes compromisos, mandatado por el Pleno:

- garantizar que la ciudadanía pueda utilizar la lengua oficial de su elección, sea esta la que sea, en las relaciones que mantenga con los y las miembros del Gobierno Municipal, especialmente en lo que se refiere al uso oral de la lengua, de manera que la ciudadanía no tengan que dejar de lado la lengua oficial de su elección y utilizar otra lengua en las citadas relaciones. (Aprobado por el Ayuntamiento Pleno el 30 de julio de 2015).

- asegurarse de que esté garantizado el carácter bilingüe de los contenidos audiovisuales generados por o en nombre del Ayuntamiento, dentro de lo que permite y recomienda la política lingüística municipal aprobada. (Aprobado por el Ayuntamiento Pleno el 25 de julio de 2016):

En un mensaje interno dirigido a toda la plantilla municipal, el alcalde recordaba los criterios aprobados, y decía literalmente: Consideramos que la administración debe ser no sólo ejemplo sino también agente en la normalización del euskera. En esa tarea resulta imprescindible la implicación de todas y todos los que conformamos la administración municipal. La ciudadanía debe tomarnos como ejemplo”.

Teniendo presente lo anteriormente comentado, estos últimos meses han ocurrido diversas infracciones de esos principios. Así, en más de una ocasión hemos puesto los problemas sobre la mesa y nos hemos fiado de las promesas de la Delegación del Gobierno municipal cuando ha reconocido los fallos y ha dado su palabra de que los intentaría

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

hurrenkeran doazela, hitzak haizeak daramatzala, egiteei so egitea besterik ez dagoela, azken asteotan jazo direnek dute hemen aurkezten den kontrol-mozioaren iturri. Prestigio egoeretan gertatzen direnak udal arauekin bat ez etortzeaz gain, Udal Gobernuaren aginduekin beraiekin ere ez. Aurtengo adibide pare bat:

- Urtarrilean Udalak Umeen Danborradaren aurkezpen-ekitaldian euskara baztertua geratu zen Udaleko ordezkaritzaren aldetik. Gaiaz itaundu eta Udal Gobernuak bere burua desenkusatu zuen esanez ustekabeko baten ondorioa izan zela baina aurrerantzean neurriak hartuko zirela, eta ez zela errepikatuko.
- Apirilean Giza Eskubideetako Zinemaldiaren itxiera-ekitaldian sari emate egiterakoan Udalaren ordezkaritzak soilik gazteleraz egin zuen. Oraingoan, baina, ustegabekorik ez. Are eta gehiago, azpimarratu beharra dago, saio berezia izan zela, Zinemaldian euskaraz ematen den horietakoa: jatorrizko filma arabieraz eta frantsesez eta azpidatziak euskaraz. Zinemaldiak egin duen esfortzu berezia aintzat hartuta, egoera ulertezina suertatu zen, bertaratuek ozenki salatu zuten moduan. Laburtuz, klausura bati dagokion trataera, Donostiako Udalak eman behar diona behintzat, ez zen izan.

Azken pasarte horren berri izanda, kezkaz interpelazioa egin genuen: Giza

solucionar. Sin embargo, mes a mes las infracciones se suceden, las palabras se las lleva el viento, y solo hay que fijarse en los actos, y el origen de esta moción de control que presentamos aquí son los acontecimientos que han ocurrido estas últimas semanas. Además de que lo sucedido en ciertas situaciones de prestigio no cumple las normativas municipales, ni siquiera las órdenes del Gobierno municipal. Un par de ejemplos de este año:

- En enero, en el acto de presentación de las tamborradas infantiles, la representación municipal dejó de lado al euskera. Interpelado sobre el asunto, el Gobierno municipal se excusó diciendo que había sido consecuencia de un imprevisto, pero que en adelante se adoptarían las medidas precisas y que no se repetiría
- En abril, en el acto de clausura del Festival de Cine y Derechos Humanos, en la entrega de premios, la representación municipal se expresó únicamente en castellano. Esta ocasión, sin embargo, no fue un imprevisto. Aún más, hay que subrayar que era una sesión especial, de las que se ofrecen en euskera dentro del festival: la película estaba en árabe y francés, con subtítulos en euskera. A la vista del especial esfuerzo que realiza el festival, la situación resultó incomprensible, como manifestaron de viva voz algunas personas. En resumen, no fue el tratamiento que corresponde a un acto de clausura, no, al menos, el que debe otorgar el Ayuntamiento de San Sebastián.

Teniendo noticia de lo mencionado en ese último párrafo, preocupadas y preocupados,

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eskubideetako Zinemaldian hizkuntza-eskubideek hartzen duten garrantziagatik, Gazteen Epai-mahaia egoteaz gain, publiko gaztearen presentzia inportantea izaten delako... Aurretik eta ondoren izan direnak alde batera utzita, gure kezka areagotu egin zen Giza Eskubideetako Zinemaldian egoera errepikatu zenean.

realizamos una interpelación, Por la importancia que cobran los derechos lingüísticos en el Festival de Cine y Derechos Humanos, en el que además existe un Jurado Juvenil, debido a la importante presencia de público joven… Dejando a un lado lo ocurrido anteriormente y posteriormente, nuestra preocupación se incrementó cuando la situación se repitió en el festival de Cine y Derechos Humanos.

Batzordean zinegotzi ordezkariaren hitzak ez ziren oso lasaigarriak izan: “dagokionari dagokiola” eta “dagokionaren borondatea” zioen, gertakizunoi arrazonamendua emate aldera. Hitzok nola bateratzen diren Udalak eman behar duen ereduarekin eta bere buruari jarri dizkion araudien betekizunarekin airean utzitako galderari bi egunera gertatutakoa gehitu behar zaio. Hau da, astelehenean Euskararen udal arduradun gorenaren partetik ez zen ziurtatu une garrantzitsuetan, alegia, Zinemaldiko sari-ematea dena bezalakoetan, udal ordezkaritzak euskaraz ere egingo duenik edo euskararen presentzia ziurtatuko duenik... Eta asteazkenean, “Eskola Agenda 21” Udal Foroan, hain zuzen ere, udal ordezkaritza gazteleraz zuzendu zitzaien umeei.

Las palabras de la concejala delegada en la comisión no fueron muy tranquilizadoras: para intentar dar una razón de lo sucedido, mencionó que “atañe a cada cual” y “la voluntad de la persona a quien corresponda”. A la pregunta que había quedado sin contestar respecto a cómo se articulan esas palabras con el ejemplo que debe dar el ayuntamiento y el cumplimiento de las normativas de las que se ha dotado, se añadió un suceso que ocurrió dos días después. Es decir, el lunes no se garantizó por parte de la más alta responsabilidad municipal que en los momentos más importantes, es decir, en actos como el que puede ser la entrega de premios del festival de cine, la representación municipal utilice el euskera o se garantice la presencia del euskera… Y el miércoles, en el foro municipal Agenda Escolar 21, en concreto, la representación municipal se dirigió a las niñas y niños en castellano.

Donostiako Eskola Agenda 21 programaren baitan Udal Foroa antolatzen du Critina-enea Fundazioak eta bertan, parte hartzen ari diren ikastetxeetako ikasleak udal ordezkariekin elkartu ohi dira, Hiri Jasangarria gaiaren inguruan egin duten lana aurkezteko, eta gai horrekin lotuta hirian egingo lituzketen hobekuntzak proposatzeko. Hala, urtero bezala, maiatzaren 18an Udalbatzaren

La Fundación Cristina-Enea organiza el Foro Municipal dentro del programa Agenda 21 Escolar, en él se suele reunir el alumnado de los centros participantes con la representación municipal, para mostrar el trabajo realizado sobre la Ciudad Sostenible y para proponer mejoras que llevarían a cabo en la ciudad en relación a ese asunto. Así, como todos los años, el 18 de mayo, las niñas y niños se

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Aretoan eta aulkietan umeak udal ordezkariekin elkartu ziren gaiaz mintzatzeko eta eztabaidatzeko gogotsu, ume guzti-guztiak euskaraz aritu ziren, batzuk, seguruen urduri eta esfortzua eginez, eta udal ordezkarien itzulketa gehienak gazteleraz. Udalak galdu zuen aukera erakusteko, etorkizunean euskaraz bizitzeko aukera dutela, baliabideak egon daitezkeela, euskaraz aritzea garrantzizkoa dela, eta horretarako baliabideak jartzeko prestutasuna dagoela... Umeak tartean direnean, interlokuzio euskalduna ez bada ziurtatuko, elkarrizketa osoa euskaraz aritzeko baliabideak badirela ziurtatu beharko litzateke, halaxe diote gure arau eta orientabideek. Halaxe diote euskararen erabilera prestigio egoeretan zein garrantzitsua den teorizatzen dutenek.

sentaron en las sillas del Salón de Plenos con la representación municipal para hablar y debatir animadamente sobre el asunto, todas las niñas y niños se expresaron en euskera, lo más seguro, nerviosos y haciendo un esfuerzo, y la mayoría de las respuestas de la representación municipal fueron en castellano. El ayuntamiento perdió una oportunidad para demostrarles que tienen la posibilidad de vivir en euskera en el futuro, que puede haber medios para ello, que es importante que se expresen en euskera, y que existe predisposición de poner los medios precisos para ello… Cuando estén presentes niñas y niños, si no se garantiza la interlocución en euskera, se debería asegurar que existan los medios precisos para que toda el coloquio se desarrolle en euskera, así lo recogen las normativas y directrices. Así lo ponen de manifiesto, asimismo, quienes teorizan sobre lo importante que es el uso del euskera en situaciones de prestigio.

Horrez gain, "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5, Plangitzaldia (2013-2017)" delakoak hiru helburu nagusi dituela gogoratu beharra dago. Horien artean, normalizazioaren ikuspuntutik bultzatu nahi den erabilerari begira garrantzitsuena, herritarrari euskararen erabilera bermatu behar zaiola, gaztelera bermatzen zaion neurrian. Gehituko genuke, are eta gehiago, umeak tartean direnean.

Además, es preciso recordar que el Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017) tiene tres objetivos principales. Entre ellos, el más importante que se pretende impulsar desde el punto de vista de la normalización respecto al uso, es el de garantizar a la ciudadanía el uso del euskera, en la medida en que se garantiza el uso del castellano. Añadiríamos que aún más cuando hay niñas y niños de por medio.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

Por todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN

Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari:

El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que:

1.- 2015eko uztailaren 30ean Udalbatzak

1.- Garantice lo aprobado por el Pleno el 30 de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

onartu zuena betetzeko; hau da, berma dezala herritarrek hautatutako hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dutela, Udal Gobernuko kideen eta beraien arteko harremanetan, bereziki ahozko erabilera egoeretan, eta herritarrek ez dezatela hautatutako hizkuntza ofiziala baztertu eta beste hizkuntza batera jo beharrik izango aipatutako harreman horietan.

julio de 2015, es decir, que la ciudadanía pueda utilizar la lengua oficial de su elección, sea esta la que sea, en las relaciones que mantenga con las y los miembros del Gobierno municipal, especialmente en lo que se refiere al uso oral de la lengua, de manera que la ciudadanía no tenga que dejar de lado la lengua oficial de su elección y utilizar otra lengua en las citadas relaciones.

2,- Arreta berezia jartzeko, Udaleko ordezkariekin harremanetan daudenak adin gabekoak direnean, eta bien arteko harremanak euskaraz gauzatu ahal daitezen, Udal Gobernuak behar diren neurri eta baliabideak jarriko dituela, euskaraz bizitzea posiblea dela erakutsiz.

2.- Preste especial atención al hecho de que cuando quines se relacionan con la representación municipal sean niñas y niños, y para que las relaciones entre amabas partes se puedan desarrollar en euskera, el Gobierno municipal disponga las medidas y medios necesarios, demostrando que es posible vivir en euskera.

3,- Berma dezala euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak ematen jarraituko duela, indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5, Plangitzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz.

2.- Garantice que seguirá avanzando en la normalización del uso del euskera, teniendo en consideración el sentido de las normas y directrices recogidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017).

4,- Donostiako herritarrei euskararen erabilera bermatuko diela, gaztelerazkoa bermatzen dien neurri berean, Udaletik egiten diren harremanetatik hasita.

4.- Garantice a la ciudadanía donostiarra el uso del euskera, en la misma medida en la que garantiza el del castellano, comenzando por las relaciones que se llevan a cabo desde el ayuntamiento.

5,- Ekitaldi ofizialetan Udala ordezkatu behar denean, Donostiako bi hizkuntza ofizialen erabilera ziurtatzeko neurriak hartuko dituela, ordezkaritza politikoari dagozkionak barne, udal ordezkaritza ere euskaraz aritu ahal izateko.

5.- Adopte las medidas precisas para garantizar el uso de las dos lenguas oficiales de San Sebastián en los actos oficiales en los que deba representar al consistorio, incluidas las que atañen a la representación política, de modo que la representación municipal también se pueda expresar en euskera.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an

En San Sebastián, a 20 de mayo de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. María Luisa García Gurruchaga, Dª. Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Alkatetzaren eta talde politikoen eremura sartzeari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el acceso a la zona de Alcaldía y Grupos políticos.**

“Amaia Martin Garin, portavoz de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de interpelación en la

PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 5ean Gipuzkoako ahaldun nagusiak bisita bat egin zuen Donostiako udaletxera, hiriarekin loturiko zenbait gai aztertzeko asmoz.

Bisita horren edukia alde batera utzirik, hura egin bitartean, harrerako arduradunek agindua jaso zuten ez ziezaiotela inori utzi Alkatetzaren eta talde politikoen eremu barrura sartzen, eta hori guztiz ulertezina egiten zaigu, ez dagoelako inolako arrazoirik bisita horrek udal taldeen agendak aztoratzeko. Hala, harrera-lekura joan behar izan genuen, talde honekin bilera bat hitzartua zuten pertsona batzuk bertara sartu ahal izan zitezen.

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, alkateak erantzun zigun ez zutela halako agindurik eman. Hori dela eta, uste dugu kontraesanak daudela alkateak esandakoaren eta hilaren 5ean, ahaldun nagusia bisitan zen bitartean, gertatutakoaren artean.

Horregatik, honako interpelazio hau aurkeztu dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio alkateari berma dezala Alkatetzaren eta talde politikoen eremu barrura sartu ahal izatea erakundeetako ordezkariak edo beste pertsona garrantzitsu batzuk bisitan diren bitartean, beste edozein egunetan egiten den bezala.

COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS del día 16-05-2016.

JUSTIFICACIÓN

El pasado día 5 de mayo el Diputado General de Gipuzkoa realizó una visita al Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián para tratar diversos temas relacionados con la ciudad.

Más allá del contenido de dicha visita, mientras duró la misma las personas responsables de recepción tenían instrucciones de no permitir la entrada a ninguna persona que quisiera acceder a la zona de Alcaldía y Grupos políticos, algo del todo incomprensible, puesto que esa visita en ningún caso tiene por qué alterar las agendas de los Grupos municipales. De hecho, tuvimos que ir a recepción para posibilitar la entrada de personas con las que este Grupo tenía una reunión.

En la Comisión de Servicios a las Personas, el Sr. Alcalde nos respondió que no se habían dado instrucciones al respecto, por lo que consideramos que hay contradicciones entre la versión del Sr. Alcalde y lo sucedido el día 5 durante la visita del Diputado General.

Es por ello que presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Alcalde a que se garantice que el acceso a las dependencias de la zona de Alcaldía y Grupos políticos durante las visitas de representantes institucionales u otras personalidades, se realice de la misma manera que cualquier otro día.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

Donostia a 20 de mayo de 2016

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, antenen ordenantza berriari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la nueva Ordenanza de antenas.**

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL, consecuencia de interpelación en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del día 16-05-2016

JUSTIFICACIÓN

Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiak 2016ko martxoaren 21ean emandako 47/16 Epaiak dioenez, udal eskumena da telefonia mugikorren udal barrutiko antenak arautzea, eta, ondorioz, ezeztatu egiten ditu Industria Ministerioaren alegazioak, udalak eskumenik ez duela diotenak.

La sentencia nº 47/16 de fecha 21 de marzo del 2016, dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián relativa a la estación base de la Calle Prim, sostiene y defiende la competencia municipal en materia de regulación de las antenas de telefonía móvil en el termino municipal, y consecuentemente desautoriza las alegaciones del Ministerio de Industria de falta de competencia municipal.

Horrek frogatzen du antenen ordenantza berriaren blokeoa justifikatzeko orain arte erabili den argudioak ez duela zentzurik. Epaia, hain zuzen, antenen ordenantza berria egiteko oinarri gisa erabilitako arrazoibidearen ildo berean doa, eta hura landu duen abokatu espezialistak egiten duen arrazoibidearen ildo berean.

Esto demuestra que la argumentación hasta ahora desarrollada para justificar el bloqueo de la nueva ordenanza de antenas pierde sentido. Resulta que la sentencia va en el mismo sentido que la argumentación que constituye los cimientos de la nueva ordenanza de antenas, y en el mismo sentido que la argumentación del abogado especialista en la materia que ha trabajado sobre ella.

Ikusita epaiak egoera berri bat ekarri duela eta aldatu egin dela antenak arautzeko udal eskumenaren inguruan den indar harremana, uste dugu egingarria eta logikoa dela antenen ordenatza berria, Udalbatzak 2015eko apirilaren 30ean hasierako onarpena eman ziona, izapidetzen jarraitzea.

A la vista de este nuevo panorama abierto por la sentencia y del giro que implica en la relación de fuerzas que se confrontan sobre la competencia municipal en materia de regulación de antenas, nos parece factible y lógico seguir con la tramitación de la nueva ordenanza de antenas aprobada inicialmente en el Pleno del 30/04/2015.

Epaira itzuliz, magistratuari errekurtso-jartzaileen lehenengo bi eragozpenak baiestea falta izan zaio soilik, hau da:

- enpresak ez duela hirian antenak zabaltzeko planik
- eta ez dela ingurumen eraginaren bana-banako ebaluaziorik egin.

Volviendo a la sentencia, al magistrado que la ha pronunciado solo le ha faltado estimar las dos primeras objeciones de los recurrentes, es decir:

- la falta de un plan de despliegue de antenas en la ciudad de parte de la empresa,
- y la carencia de evaluación individualizada de impacto ambiental.

Egun indarrean dagoen ordenantzak –hots, 2002koak– zehazten duenez, hedapen plan

La ordenanza actualmente vigente, del 2002, especifica que el plan de despliegue es

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

hori ezinbestekoa da edozein antena instalatu ahal izateko (3. artikulua) eta ingurumen eraginari buruzko ebaluazioa nahitaezkoa da “ingurumen aldetik sentikorrak diren eremuetan” (6. artikulua). Hau da, ezinbesteko bi elementu horiek aintzat hartu gabe eman da baimena ingurumen aldetik sentikorra den alde batean antena jartzeko.

Eta hori oso harrigarria da. Anomalia bat da, eta, logikoki, anomalia bat aurkitzean, besterik ba ote den ikustea izaten da lehenengo erreakzioa. Batez ere, kontuan hartuta, Antenarik Ez kolektiboak kalkulatutakoaren arabera, hirian 500 antena inguru daudela eta Udalak bere erregistroetan 200 antena baino gutxiago dituela zenbatuak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari har dezala oinarritzat duela gutxi ateratako epaia eta jarrai dezala izapidetzen ordenantza berria, Udalbatzak 2015eko apirilaren 30ean, kontrako botorik gabe, hasierako onarpena eman ziona.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eman diezaiela udal taldeei hedapen plan guztien berri, bai eta telefonia mugikorreko enpresek orain arte aurkeztu dituzten ingurumen eraginaren bana-banako ebaluazio guztien berri ere.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zorrotz azter ditzala udal barrutian dauden antena guztien instalazio baldintzak, indarrean den ordenantza betetzen ote duten ikusteko.

necesario para poder instalar cualquier antena (artículo 3) y que la evaluación de impacto ambiental es obligatoria en “zonas ambientalmente sensibles” (artículo 6). Es decir que se ha autorizado la instalación de una antena en una zona ambientalmente sensible sin contar con esos dos elementos imprescindibles.

Este hecho es muy sorprendente. Se trata de una anomalía y lógicamente, cuando se encuentra una anomalía, la primera reacción es verificar si no hay otras. Sobre todo cuando además el colectivo Antenarik Ez estima en 500 el numero de antenas presentes en la ciudad mientras que el Ayuntamiento tiene contabilizadas en sus registros menos de 200.

Es por todo ello que presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que se apoye en la reciente sentencia para seguir adelante con la tramitación de la nueva ordenanza de antenas aprobada inicialmente y sin ningún voto en contra el 30/04/2015.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que transmita a los Grupos Municipales todos los planes de despliegue y todas las evaluaciones individualizadas de impacto ambiental que las empresas de telefonía móvil han presentado hasta ahora.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que realice una revisión exhaustiva de las condiciones de instalación de todas las antenas presentes en el termino municipal con el

objetivo de verificar si cumplen con la ordenanza actualmente vigente.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Donostia a 20 de mayo de 2016

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, salaketetan TAO-ko agenteen izenak agertzea dela-eta.**

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre los nombres de los y las agentes de OTA en denuncias.**

"Amaia Martin Garin Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2016ko maiatzaren 16an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAn egindako interpelazioaren ondorioz.

"Amaia Martin Garin, portavoz de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL, consecuencia de interpelación en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO de fecha 16-05-2016.

JUSTIFIKAZIOA

TAO zerbitzuko langileek salatu dute Udalak arau-hausteren bat egin dutenei bidaltzen dizkien isunetan beren izena ageri dela eta, hortaz, arau-hausleek ez dute inolako oztoporik salaketa jarri duen agentea identifikatzeko. Hori langile horien kaltetan izan daiteke.

Bestalde, aditzera eman dutenez, duela hilabete bat baino gehiago bildu dira Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkariarekin eta honek esan die egoera aztertzen ari direla. Bestalde, hainbat proposamen egin dituzte, isunetan beren identifikazio pertsonala ez agertzeko. Beren esanetan, hori Donostian baino ez da gertatzen.

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun ziguten langileek eskatutako neurriak hartzea oso zaila dela, indarrean dauden arauak direla-eta. Hala eta guztiz ere, Donostiako Udala da inguruko udal bakarra isunetan salaketa egin duenaren izen-abizenak jasotzen dituena. Are gehiago, Bilboko Udalak TAO-ko agenteek eskatutako prozeduraren arabera jokatzen du jada.

Bestalde, CCOO sindikatuaren txosten juridiko bat eskuratu dugu eta, bertan esaten denez, ez dago inolako trabarik TAO zerbitzuko langileek eskatzen duten moduan jarduteko.

Horiek horrela, kontrol mozio hau aurkezten dugun

JUSTIFICACIÓN

El personal del servicio de la OTA ha denunciado que las multas que el Ayuntamiento envía a las personas infractoras incluye su nombre de manera que éstas pueden identificar sin problemas a el o la agente que ha cursado la denuncia, lo que podría producir situaciones indeseables para los y las trabajadoras.

Asimismo, han informado de que se han reunido hace más de un mes con la Concejala Delegada de Movilidad y Transporte y que ésta les ha respondido que están analizando la situación. También han realizado propuestas para evitar que las multas lleven su identificación personal, algo que, que de acuerdo con sus declaraciones, sólo ocurre en Donostia / San Sebastián.

En la Comisión de Servicios a las Personas, se nos respondió que era muy complejo debido a la normativa vigente poner en marcha las medidas solicitadas por los y las trabajadoras, no obstante, el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián es el único del entorno que incluye el nombre y apellidos de la persona que ha cursado la denuncia. De hecho, en el Ayuntamiento de Bilbao ya se actúa según el procedimiento solicitado por los y las agentes de la OTA.

Además, hemos tenido acceso a un informe jurídico del sindicato CCOO, en el que se pone de manifiesto que es perfectamente viable proceder tal y como solicitan los y las empleadas del servicio de OTA.

Es por ello que presentamos la siguiente:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txosten juridiko bat egiteko, TAO-ko langileek egindako proposamenak bideragarriak diren aztertzearren, hala erabaki ahal izango baita ea posible den agenteen izenak ez jartzea Udalak bideratzen dituen salaketetan, horrek ekar ditzakeen arazoak saihestuz.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Izpta.: Amaia Martin Garin
Irabazi Donosita udal taldeko bozeramailea".

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que elabore un informe jurídico que analice la viabilidad de las propuestas hechas por los y las trabajadoras de la OTA en relación con la no inclusión de sus nombres en las denuncias que cursa el Ayuntamiento, de manera que se eviten problemas que pudieran derivarse de la inclusión de sus nombres en las mismas.

Donostia a 20 de mayo de 2016

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D.ª Pilar Arana Pérez y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA**

**II.2.12. Moción de control, presentada por el**

**taldeak aurkeztua, Arrobitxuloko parkearen gainekoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Arrobitxuloko parkea joan den martxoan inauguratu zen. Intxaurrondo-Herrera bidegorriaren ondoan den parke horrek haur jolasen toki estali bat, rokodromoa, mahaiak, pertsona helduek ariketak egiteko tokiak eta bizikletetan ibiltzeko zirkuitu bat ere badu, aldapa batzuekin eta.

Parkeak harrera bikaina izan du, inguruko auzoetako bizilagunek eskatutako gauza bat zen eta. Hala ere, parkea ikusten izan ginen batean, ikusi genuen eskonbro batzuk daudela botata hango toki batzuetan (ikus eranskinak). Eta komun publikorik ere ez dago parkean.

Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hilaren 16an izan zuen bileran zera erantzun ziguten:

- Komun publikoak izatea ez zegoela proiektuan, eta hurrengo urteko aurrekontuetan jarriko dutela kontu-sail bat komunak egiteko.

- Proiektuan, jolasleku batzuk izatea jartzen zuela (ez lorategiak), eta hurrengo urtean jarriko dituztela toki batzuk lorategi.

**Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el parque de Arrobitxulo.**

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL, consecuencia de interpelación en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del día 16-05-2016

JUSTIFICACIÓN

El parque de Arrobitxulo se inauguró el pasado mes de marzo. Este parque situado junto al bidegorri Intxaurrondo-Herrera cuenta con una zona de juegos infantiles cubierta, rocódromo, mesas para picnic, espacios para ejercicio para las personas mayores y un circuito de rampas para bicicletas.

Este parque ha tenido una excelente acogida puesto que era una demanda del vecindario de los barrios donde se encuentra. No obstante, en una visita que hemos realizado al parque hemos comprobado la existencia de escombros en algunas zonas (ver anexos). Asimismo, no hay aseos públicos en el parque.

En la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del día 16, se nos respondió que:

- La colocación de aseos públicos no estaba prevista en el proyecto y que se incluirá una partida en los presupuestos del próximo año para realizarlos.
- Que el proyecto contemplaba zonas de esparcimiento (no ajardinadas) y que igualmente el año que viene se realizarán zonas ajardinadas.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Komunak: berri ona da komun publiko batzuk jartzeko asmoa izatea. Hala ere, guk uste dugu denbora dezente beharko dela komunak egiteko. Behin-behingo konponbideren bat, behintzat, izan behar litzateke.

Jolaslekuak: berri ona da lorategi gune batzuk egiteko asmoa izatea. Baina, komunekin bezala, denbora dezente joango da horiek izaterako ere. Jolasguneak, bestetik, jolaserako modukoak izan behar lirateke, hau da, toki zelai samarrak eta, batez ere, adreilu, teila, beira, adar eta antzeko beste eskonbrorik gabekoak.

Horrenbestez, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio komun publiko batzuk jartzeko Arrobitxuloko parkean behin-behingoz, jarri eta kentzeko moduko komun batzuk alokatuta edota ondo iruditzen zaion beste moduren batera, harik eta konponbide behin betiko bat izan arte.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio egin behar diren gestioak egiteko Arrobitxuloko parkeko jolasleku guztiak jolaserako moduan eta ezeren eskonbrorik gabe izateko, obrak egin zituen enpresari hala eginarazita edo udal zerbitzuen bidez eginda.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Sobre los aseos: es una noticia positiva que se prevea colocar aseos públicos. No obstante, entendemos que estos no se realizarán antes de un periodo bastante largo. Creemos necesaria una solución por lo menos provisional.

Sobre las zonas de espacimiento: es también una noticia positiva que se prevea realizar zonas ajardinadas. No obstante, igualmente que con lo anterior, por una parte estos no se realizarán antes de un periodo bastante largo, y por otra parte las zonas de esparcimiento deberían ser practicables, es decir minimamente planas y sobre todo sin presencia de trozos de ladrillo, teja, vidrio, ramas, entre otros tipos de escombros.

Por todo ello presentamos la siguiente

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que instale de manera provisional aseos públicos en el parque de Arrobitxulo, con sanitarios portátiles alquilados u otro método que considere más oportuno, hasta que no se de una solución definitiva a los mismos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que realice las gestiones necesarias para que todas las zonas de esparcimiento del parque de Arrobitxulo estén practicables y sin ningún tipo de escombro, exigiéndolo a la empresa adjudicataria de las obras realizadas, o efectuándolo desde los servicios municipales.

Donostia a 20 de mayo de 2016

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Miguel Angel Diez Bustos jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Miguel Ángel Díez Bustos, D. José María Murguiondo Casal y Dª. Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, energia elektrikoa kontratatzea dela-eta.**

“Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan Ogasun Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den abenduan, Donostiako Udalbatzak aho batez onartu zuen, gure taldeak aurkeztutako ekimen bat zela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea bere erosketa

**II.2.13. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la contratación de la energía eléctrica.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de interpelación en la Comisión de Hacienda del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de diciembre el Pleno de Donostia / San Sebastián aprobó por unanimidad, a iniciativa de nuestro grupo, solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que,

zentralaren bidez jo zezala argindarraren handizkako merkatura zuzeneko kontsumitzaile gisa, Gipuzkoako udalentzat energia erostera. Era berean, Aldundiari hertsatuki eskatzen zitzaion lortutako aurrezkia gizarte politiketan erabiltzeko.

a través de su central de compras, acudiera al mercado mayorista de electricidad como consumidora directa para la compra de la energía de los municipios guipuzcoanos. Asimismo, se instaba a la Diputación a que el ahorro obtenido se destinara a políticas de carácter social.

Erabaki horren azken xedea da argindarraren fakturan aurreztea, pobrezia energetikoari aurre egiteko. Gizarte Ekintza Sailak Gizarte Larrialdietako Laguntzak direla-eta 2015ean egindako Memoriaren arabera, Udalak 750.177,77€ erabili zituen familiek energia gastuak ordaintzeko egindako eskaerei erantzuteko.

El objetivo final de todo esto es ahorrar en la factura de la luz para hacer frente a la pobreza energética existente. De hecho, según la Memoria de 2015 del Departamento de Acción Social en relación con las Ayudas de Emergencia Social (AES), el Ayuntamiento destinó 750.177,77 € a atender las solicitudes de familias para hacer frente a gastos de energía.

Hilaren 16an egindako Ogasun Batzordean, interpelazio bat egin genion Domínguez-Macaya Ogasuneko zinegotzi ordezkariari jakiteko zergatik Udalak, Aldundiaren erosketa zentralaren bidez, urtebetez luzatu duen Iberdrolarekin duen kontratua, Udalbatza honek aho batez onartutako mozioaren kontra.

En la Comisión de Hacienda del día 16 interpelamos al Concejal Delegado de Hacienda, Sr. Domínguez-Macaya, sobre las razones por las que el Ayuntamiento, a través de la central de compras de la Diputación, ha prorrogado el contrato con Iberdrola por un año más, a pesar de la moción aprobada por unanimidad por este Pleno.

Zinegotzi ordezkariak emandako erantzunaren arabera, Foru Aldundiak ez du argindarraren handizkako merkatura jotzeko asmorik, uste baitu horrekin ez dela lortuko fakturan aurreztea. Zinegotziak gaineratu zuenez, Udalarentzat konplexua litzateke bakarrik jotzea merkatu horretara, zaila baita kontsumoa aurreikustea. Argudio hori, baina, guztiz ulertezina da, bai urteko aurrekontuek bai luzatutako kontratuak horri buruzko aurreikuspenak jasotzen dituzte-eta.

El Concejal Delegado, Sr. Domínguez-Macaya, nos respondío que la Diputación Foral no se planteaba acudir al mercado mayorista de electricidad, ya que considera que no se conseguiría ahorrar en la factura. Asimismo, manifestó que para el propio Ayuntamiento sería muy complejo acudir en solitario dada la dificultad de hacer una previsión del consumo, algo totalmente incomprensible, ya que tanto los presupuestos anuales, como el propio contrato prorrogado, incluyen previsiones al respecto.

Prozedura zaila dela argudiatzea ere ez zaigu onargarria iruditzen. Izan ere, badaude udal

Tampoco consideramos válido el argumento de la dificultad del procedimiento, ya que de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

batzuk, Avilesekoa kasu (83.000 biztanle, PSOEk gobernatua), argindarra zuzenean erosten dutenak, %20ko aurrezkia lortuz. Gauza bera egiten du SEA Arabako Enpresaburuak elkarteak, eta antzeko aurrezkiak lortzen ditu kide dituen enpresentzat. OCUk (Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundea) eta energia kooperatibek ere handizkako merkatura jotzen dute, eta antzeko aurrezkiak lortzen dituzte.

Ez Gipuzkoako Foru Aldundiak ez Udalak aukera hori aztertzeko asmorik ere ez izateak −eta, hortaz, argindarraren fakturan aurkeztu eta diru hori pobrezia energetikoa arintzeko politiketan erabiltzeari uko egiteak−, argi uzten du Udalbatzaren erabakiak ez direla batere errespetatzen, EAJ eta PSEk zuzentzen dituzten bi erakundeon gobernuek ez dutela borondate politikorik gai hau dela-eta eta funts publikoak kudeatzeko modua guztiz kaltegarria dela. Izan ere, uko egiten diote argindarraren fakturan aurrezki handi samarrak lortzeko aukerari. Donostiaren kasuan, aurrezki horiekin energia gastuetarako laguntzen ia %100 ordain liteke.

Harrigarria da, argindarraren fakturan %20raino aurrezteko aukera izanda, Iberdrolarekiko kontratua berriro luzatu izana, hemen onartutako alternatiba aztertu ere egin gabe. Gainera, Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko diputatuak Pobrezia Energetikoa Prebenitzeko Estrategiaren oinarrizko ildoak azaldu eta handik gutxira egin zen kontratu horren luzapena −Aldundia lantzen ari den ildo batzuk dira, Energia Foru Planari lotuak, azken xedea dutenak energiaren faktura murriztea−.

Ingurumeneko diputatuak berak aitortu zuen pobrezia murrizteko neurriak zuzentzaileak

hecho, ayuntamientos como el de Avilés con 83.000 habitantes, gobernado por el PSOE ya compra directamente la electricidad logrando así ahorros de un 20%. Exactamente lo mismo hace la asociación SEA, Empresarios Alaveses, logrando ahorros similares para sus empresas asociadas. También la OCU o las cooperativas energéticas acuden directamente al mercado mayorista, obteniendo niveles de ahorro parecidos.

El hecho de que tanto la Diputación Foral de Gipuzkoa como el propio Ayuntamiento ni siquiera se planteen estudiar esta alternativa para ahorrar en la factura de la luz y aplicar después políticas para paliar la pobreza energética, demuestra una absoluta falta de respeto a las decisiones plenarias, nula voluntad política de los gobiernos de ambas instituciones liderados por PNV y PSE, y una nefasta gestión de los fondos públicos, ya que pudiendo obtener ahorros importantes en la factura de la luz, se niegan a ello. En el caso de Donostia / San Sebastián, esos ahorros podrían cubrir casi el 100% de lo destinado a las ayudas para gastos energéticos.

Nos sorprende que siendo posible ahorrar hasta un 20% en la factura de la energía electrica se siga prorrogando el contrato con Iberdrola, sin plantearse la alternativa aquí aprobada, prórroga que se da poco después de que el Diputado de Medio Ambiente, Jose Ignacio Asensio, avanzara las líneas básicas de la Estrategia de la Prevención de la pobreza energética que está elaborando la Diputación, líneas que dentro del “Plan Foral de la Energía”, tienen como fin último la reducción de la factura energética.

Así, el propio Diputado de Medio Ambiente, reconoce que las medidas que se pueden

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

izan daitezkeela, baina, baita ere, prebentiboak. Azken hauen artean, energiaren erosketa hobetzea sartu zuen.

Hori dela-eta, gure iritziz, administrazioek jarraitu beharreko logikak izan beharko luke argindarraren faktura murrizteko beharrezko elementuak artikulatzea. Beste erakunde batzuek lortutako aurrezkiek argi uzten dute energia zuzenean erosteko handizkako merkatura jotzeak aurrezki handi samarra dakarrela fakturan.

Hori dela-eta, honako kontrol mozioa aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txosten bat aurkezteko, argindarraren handizkako merkatura zuzenean jotzeko zer pausu eman behar diren argitzearren. Merkatuan eskatuko du, bestalde, argindar horrek iturri berriztagarriak izatea.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari argindarra handizkako merkatuan zuzenean erosita lortzen duen aurrezkia gizarte politiketan erabiltzeko.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea”.

acometer para reducir la pobreza pueden ser correctoras, pero también preventivas. Entre estas últimas, incluye la mejora de la compra de la energía.

Por tanto, entendemos que la lógica de las administraciones debiera ser la de articular los elementos necesarios para reducir la factura eléctrica. Los ahorros obtenidos por otros organismos demuestran que ir al mercado mayorista para la compra directa de la energía supone un ahorro importante en la factura.

Por este motivo, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que presente un informe que analice los pasos a dar para acudir de manera directa al mercado mayorista de electricidad, en el que demandará que esta proceda de fuentes renovables.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a destinar el ahorro obtenido por la compra directa en el mercado mayorista de electricidad a políticas sociales.

Donostia a 20 de Mayo de 2016

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.14. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, hirigintza ondarearen babesari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartuta, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO Batzordearen 2016-05-16ko bileran aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 16ko Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, Ancorak eraikin batzuen babes espedienteak irekitzeko eskaerak egin zituela ikusirik, Beatriz Infantaren kaleko 16. zenbakian (Txomin Jatetxea), Kristina Infantaren kaleko 18. eta 20. zenbakietan (Kánimar eta Kanasí etxeak)

**II.2.14. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la protección del patrimonio urbanístico.**

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de interpelación en la Comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del día 16-05-2016

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del pasado día 16, a la vista de varias solicitudes de Ancora para incoar expedientes de protección de varios edificios, interpelamos sobre la situación de los ubicados en calle Infanta Beatriz nº 16 (Restaurante Txomin), Infanta Cristina nº 18 y

eta Mirakruz kaleko 19. zenbakian kokatuta dauden eraikinen egoerari buruz interpelatu genuen. Eraikin horietan guztietan eraisketa ekar dezaketen hirigintza eragiketak daude aurreikusita. Era berean, Txomin Jatetxearen eraikineko eraikuntza berrien publizitateari lotutako zigor kausa posible bati buruz ere interpelatu genuen.

20 (villas Kánimar y Kanasí) y Miracruz 19. En todos ellos hay previstas operaciones urbanísticas que pueden suponer el derribo de los mismos. Igualmente interpelamos sobre una posible causa de sanción en relación a la publicidad de las nuevas edificaciones en el edificio del restaurante Txomin.

Gure ustez, jasotako erantzunak oso orokorrak izan ziren; ez zitzaigun azaldu aipatutako eraikinak zergatik ez ziren sartu HOEBPBn, balio kulturala aurretik aitortu bazitzaien ere. Era berean, ez zen argi geratu ea Udal Gobernuak eraikin horietan eragiketaren bat gauzatzeko asmoa duen.

Consideramos que las respuestas que recibimos fueron muy genéricas, no se nos respondió a los motivos por los que no se incluyeron en el PEPPUC los citados edificios, a pesar de que anteriormente sí se les habían reconocido valores culturales. Tampoco quedó claro si el Gobierno municipal tiene intención o no de llevar a cabo algún tipo de actuación sobre los mismos.

Oraindik eraikitzeko baimenik izan gabe etxebizitza batzuen publizitatea egin zuen enpresa etxegile bati zigorra ezartzeko aukera zela eta, erantzuna oso lausoa izan zen, argudio gisa erabili baitzen ohiko jardunbidea zela; hori ez da inolako argudioa legeak berariaz aurreikusten duen zigor bat ez ezartzea justifikatzeko. Gainera, kartela jartzeko ere hirigintzako baimena behar dela kontuan hartuta, baliteke enpresa etxegileak zigorra dakarten bi huts egin izana, eta ez bakarra. Nolanahi ere, Zinegotzi Ordezkariak publizitatearen kokalekuagatik zigorra jar zitekeen ala ez bakarrik aztertu zuen.

En relación con la posible causa de sanción a una promotora por haber publicitado viviendas aún sin haber obtenido la licencia para su construcción, la respuesta también fue muy vaga, ya que se aludió a que era una práctica habitual, lo que no constituye ningún argumento para justificar la no imposición de una sanción expresamente prevista por la ley. Más aún cuando la propia colocación del cartel requiere de licencia urbanística, por lo que incluso la promotora podría haber incurrido en dos causas de sanción. Sin embargo el Concejal Delegado se limitó a valorar si el lugar de colocación de dicha publicidad era o no suspecptible de sanción.

207. artikulua. Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzak.
1 Jarraian adierazten diren ekintza hauek guztiek hirigintzako lizentzia behar dute –horrez gainera, aplikatzekoa den sektore-legeriak eskatutako baimenak ere lortu beharko dira–:

Art. 207 Actos sujetos a licencia urbanística.

1 Están sujetos a la obtención de licencia urbanística, sin perjuicio de las demás autorizaciones que sean procedentes con arreglo a la legislación sectorial aplicable, los siguientes actos

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

o) Propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzea, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo gainean ipini badira.
p) Lurpean eraikitzen diren edo lurpeari eragiten dioten instalazioak.

o) La colocación de carteles y vallas de propaganda visibles desde la vía pública cuando estén levantadas o apoyadas en un elemento que sirva de soporte estructural.

p) Las instalaciones que se ubiquen o afecten al subsuelo.

237. artikulua. Eraikuntzen alorreko arau-hausteak.

Artículo 237. Infracciones en materia de edificación.

6. 500 eurotik 5.000 eurora arteko isuna jarriko zaie lizentziarik gabe 207. Artikuluko 1. Paragrafoko p) letran aipatzen diren propaganda-kartelak jartzen dituzten enpresei. Kokapena, tamaina eta kartelak lekuan eta ingurunean duen eragina kontuan hartuta mailakatuko da zehapena. Mailarik gorena jarriko zaio zehapenari, baldin eta administrazioak erabakia hartu eta kartela kentzeko agindu ondoren agindu hori betetzen ez bada.

6. Se sancionará con multa de 500 euros a 5.000 euros a las empresas anunciantes que coloquen, sin contar con licencia para ello, los carteles de propaganda a que se refiere la letra p) del apartado 1 del artículo 207. La sanción se graduará en función de la localización, el tamaño y la incidencia en el medio físico y en el entorno. La sanción se aplicará en su grado máximo cuando se incumpla la resolución de la administración requiriendo la retirada del cartel instalado sin la pertinente autorización.

Ancorak aipatutako eraikinak HOEBPBn sartzeko aurkeztu dituen eskaerei dagokienez, gure ustez, eskaerak onartzeko edo ezeztatzeko, Udal Gobernuak arrazoiak emanez erantzun behar die, Plan Bereziak berak 9. artikuluan ezartzen duena betez:

9. Artikulua. Hirigintza Ondare Eraikiaren Katalogoa eguneratzea. 2. Katalogoan beste elementu batzuk ezabatu edo txertatu nahi badira, honela jardun beharko da:

En relación con la solicitudes presentadas por Ancora para incluir en el PEPPUC los edificios citados anteriormente, entendemos que el Gobierno municipal debe dar una respuesta motivada a las mismas, bien estimando la solicitud o bien denegándola, para cumplir lo que establece el propio Plan Especial en su Artículo 9. Actualización del Catálogo del Patrimonio Urbanístico Construido, apartado 2. La inclusión o exclusión de otros elementos en el Catálogo se podrá hacer:

* Plan Berezi hau aldatzeko espedienteari emango zaio hasiera, Administrazioak berak, partikularrek eta abar eskatuta.

* Mediante la incoación del correspondiente expediente de modificación de este Plan Especial, promovido a instancia de la propia Administración, de particulares, etc.

Espedienteak aldaketaren motibazioaz gain

Dicho expediente deberá contener, además de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

honako alderdi hauek ere hartu beharko ditu barnean: txertatu edo ezabatu beharreko elementuaren identifikazioa, egin nahi den ekintzaren justifikazioa eta, babes erregimenaren aldaketen edo txertaketen kasuan, elementua dagokion babes mailarako atxikipena, eta dagokion Ordenantza Partikularra.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio arrazoiak emanez erantzun diezaiela Ancorak eraikin batzuk HOEBPBn sartzeko espedienteak irekitzeko aurkeztu dituen eskaerei.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezko izapideak abiaraz ditzala HOEBPBn sartzeko balio arkitektonikoa edo historikoa izanik edo hiriko eraikin adierazgarriak izanik oraindik plan horretan jasota ez dauden eraikinak.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio babes aukera tekniko eta juridiko guztiak azter ditzala Kristina Infantaren kaleko 18. eta 20. zenbakietan kokatuta dauden Kánimar eta Kanasí etxeentzat, Beatriz Infantaren kaleko 16. zenbakiko eraikinarentzat (Txomin Jatetxea) eta Mirakruz kaleko 19. zenbakiko eraikinarentzat.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Sin. Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

la motivaciónde la modificación, la identificación del elemento a incluir o excluir, la justificación de la acción que se pretenda y, en el caso de nuevas inclusiones o modificaciones del régimen de protección, la adscripción del elemento al grado que corresponda y su consiguiente Ordenanza Particular

Es por ello que presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que de una respuesta motivada a las solicitudes presentadas por Ancora para incoar expedientes de inclusión en el PEPPUC.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que inicie los trámites necesarios para incluir dentro del PEPPUC los edificios que tengan valor arquitectónico, histórico o que sean representativos de la ciudad que aún no están recogidos en el mismo.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que analice todas las posibilidades técnicas y jurídicas de protección para los edificios denominados villa Kánimar y Kanasí ubicadas en la calle Infanta Cristina nº 18 y 20, el edificio ubicado en la calle Infanta Beatriz nº 16 (Restaurante Txomin) y el edificio de la calle Miracruz nº 19.

Donostia a 20 de mayo de 2016

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Ricardo Burutarán Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)**

**PSE-EE, (3) PP.**

**PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, katu kolonien CES kontrolari buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udal Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eginiko interpelazioaren ondorioz, KONTROL MOZIO hau aurkezten du animalien kontrolari buruz; zehazki, katu kolonien kontrolari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Jendeak abandonatzen duen katu kopuru handiaren eta animalia hauen ugalkortasunaren ondorioz, katu koloniak sortzen dira hirietako kaleetan, kontrolik gabe ugaldu eta eragozpenak sor ditzaketenak.

CES prozedurak (Harrapatzea/ Antzutzea/Askatzea, gaztelaniaz) kaleko katu koloniak kontrolatzen laguntzen du, koloniako katu guztiak edo gehienak antzutuz.

Teknika honi esker, berehala egonkortzen da koloniaren tamaina, baldin eta gutxienez animalia heldu ugalkorren % 70 antzutzen badira. % 100 inguruko antzutzeak animalia populazioaren txikitze gradual bat eragiten du, epe jakin batean. CES prozeduraren abantailak hauexek dira:

- Drastikoki murrizten dira kaleko katuek

**II.2.15. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre control de colonias felinas (CES).**

“Loïc Alejandro, concejal del grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio sobre el control de animales, concretamente, de colonias felinas.

JUSTIFICACIÓN

El continuo abandono de gatos domésticos unido a su capacidad reproductiva origina colonias potencialmente descontroladas de gatos callejeros ocasionando molestias a los y las vecinas de la ciudad.

Un procedimiento CES (Capturar-Esterilizar-Soltar) aplicado a los gatos es un procedimiento que permite el control de una colonia de gatos callejeros realizando esterilizaciones de la totalidad o de la mayoría de la población felina.

La técnica CES estabiliza inmediatamente el tamaño de la colonia si por lo menos se esteriliza el 70% de los adultos fértiles. Una esterilización cercana al 100% dará lugar a una declinación gradual de la población en un cierto plazo. Las ventajas de un CES son las siguientes:

- El molesto comportamiento asociado

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

sortzen dituzten zalaparta eta eragozpenak: katuen mauak, borrokak eta estaltze garaiko zalapartak, ar ugalkorren usaina, beren eremua gernuz markatzen dutenean...

- Katu antzuek joera txikiagoa dute hara-hona ibiltzeko, eta eragozpen gutxiago sortzen dituzte etxe inguruetan.
- Katuen presentziak indibiduo berriak agertzea eragozten du, eta “huts efektua” saihesten du horrek. Basa animalia populazio guztietan gertatzen da hori (hirietako katu kolonietan ere bai).
- Ez da eteten arratoi eta saguen kontrol naturala.
- Kaleko katuak antzutzean, katu gutxiago eramaten dira animaliak babesteko elkarteetara.
- Koloniaren jarraipen egokia eginez gero, txikitu egiten dira kaleko katuen gestioak eragindako gastuak, katu koloniak hazteari uzten diolako antzutzearen ondorioz, eta indibiduo berriak agertzea eragozten delako.
- Kume bakar eta zurtz gutxiago.

Prozedura honek ikerketa zientifikoen bermea du (GEMFE eta AVEPA –Asociación de veterinarios españoles especializados en pequeños animales–), eta antzeko lanak egin dira arrakastaz munduko leku ugaritan: Erroma, Paris, Gijon, Valentzia, Tolosa, Tunisia, Lamu (Kenyak uhartea). Gugandik hurbilago, Gasteizek asmoa du aurten CES prozedura bati ekiteko, boluntario taldeen laguntzaz, eta Bilbo ere norabide berean ari da lanean.

frecuentemente a los gatos callejeros se reduce drásticamente. Esto comprende maullidos, escándalos provocados por las peleas y el acoplamiento, así como el olor de los machos fecundos, quienes marcan su territorio con orina.

- Los gatos estériles tienden a vagar menos evitando así ciertas molestias cuando entran en las propiedades.
- La presencia de gatos impide la incorporación de nuevos individuos, evitando así el “efecto vacío” observado en todas las poblaciones de animales silvestres y también en las colonias de gatos urbanos.
- Continúan proporcionando un control natural de los roedores.
- Al esterilizarse los gatos callejeros, disminuye el número de animales que ingresan en la Protectora.
- Con un seguimiento eficaz de la colonia, los gastos relacionados con la gestión de los gatos callejeros disminuye ya que la colonia deja de crecer al ser esterilizada y su presencia limita la incorporación de nuevos gatos.
- Menos crías necesitadas o huérfanas.

Este procedimiento está avalado por investigaciones científicas (avales de GEMFE-AVEPA Asociación de veterinarios españoles especializados en pequeños animales) y hay abordajes similares que han sido desarrollados exitosamente de diferentes maneras en diferentes ciudades del mundo: Roma, París, Gijón, Valencia, Toulouse, Túnez, Lamú (isla de Kenya). Más cerca de nosotras, Vitoria tiene previsto implantar un procedimiento CES con equipos de voluntarios y voluntarias este año, y Bilbao trabaja también en esa dirección.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Aipatzekoa da oro har kolonietan ez dela abandonu kopuruaren igoera esanguratsurik sumatzen, prozedura ezarri eta gero, aurreko egoerarekin alderatuz gero.

Cabe señalar que en general no se percibe un aumento significativo de abandonos en las colonias tras implementación del procedimiento, comparado con la situación anterior.

Donostia duela 20 urte hasi zen CES teknika aplikatzen: kaleko katua harrapatu, antzutu eta askatu egiten da, herritar batek, animalien babeserako elkarteak edo udal zerbitzuek indibiduo baten presentziaz puntualki ohartarazten dutenean.

En Donostia, se realiza desde hace 20 años un procedimiento CES que consiste en capturar, esterilizar y soltar al gato callejero cuando se señala puntualmente la presencia de uno por parte de: un o una ciudadana, la protectora o los servicios municipales.

Gaur egungo sistemaren emaitzak onak dira, udal zerbitzuek diotenez. Dena dela, katuak identifikazio puntualen bidez harrapatzen direnez eta harrapaketak sistematizatuak ez direnez, gerta daiteke berriro ere kolonia baten gaineko kontrola galtzea eta ordura arte antzutze lanetan eginiko ahalegin eta gastu guztiak alferrikakoak izatea.

El sistema actual da resultados calificados de satisfactorios por los servicios municipales. No obstante como las capturas se realizan en base a identificaciones puntuales y no sistematizadas, cabe la posibilidad de que una colonia dada se vuelva nuevamente descontrolada en cualquier momento, dejando así sin efecto los esfuerzos de esterilizaciones realizados hasta entonces y los gastos que conllevan.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Horregatik, uste dugu kolonien jarraipen lana egitea funtsezkoa dela CES prozeduraren barnean, eta badirudi udal zerbitzuak iritzi berekoak direla, elkarte animalista bati proposatu diotelako jarraipen horretaz arduratzea.

Por eso creemos que el seguimiento de las colonias es una pieza fundamental dentro del procedimiento CES, y parece que los servicios municipales comparten esa idea ya que en unas conversaciones han propuesto a una asociación animalista realizar, de alguna forma, ese seguimiento.

Jarraipen formalago eta sistematizatuago batek guztiz eraginkor egingo luke CES prozedura. Era honetako esku hartze eraginkorrenetan, kalean askatzen diren katuak markatu egiten dira, antzuak direla identifikatzeko, eta zaintzaile boluntarioek jana eta babesa eman eta haien jarraipena egiten dute, zeregin garrantzitsuenetako bat izanik kolonian katu berriren bat agertzen den kontrolatzea. Boluntarioei prestakuntza

Realizar un seguimiento más formal y más sistematizado de las colonias permitiría al CES alcanzar su máxima efectividad. En las implementaciones más completas del CES, los gatos devueltos son marcados para identificarlos como estériles, se les proporciona alimento, refugio y seguimiento por quienes voluntariamente se hagan cargo de esas tareas, los y las cuidadoras, quienes además tienen la tarea fundamental de vigilar por si

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ematen zaie (ikus eranskina), identifikatu egiten dira (ikus eranskina) eta atxikipen konpromiso bat sinatzen dute.

aparece algún gato nuevo. Los y las voluntarias reciben formación (ver anexo), son identificadas (ver anexo), y firman un compromiso de adhesión.

Katuen bizi baldintzak hobetzeaz gainera, katu kolonia saneatu, kontrolatu eta babestu bat gizarte baliabide interesgarri bat izan daiteke. Adibidez, Zaragozan, gurasoak seme-alabekin irteten dira paseoan katu koloniak bisitatzera (katu koloniak panel batean seinalatuta daude – ikus eranskina). Hori horrela, katua elementu natural bat da hiriaren erdian, entretenimendurako baliabidea eta aukera egokia umeak naturaren eta animalien zaintzan hezteko. Gainera, aplikazio okupazional, praktiko eta efektibo bat ere eduki dezake ikastetxe edo laguntza zentro jakin batzuetan.

Además de la mejora de las condiciones de vida de los gatos, las colonias saneadas, controladas y protegidas son un interesante recurso social en la ciudad. En Zaragoza observan padres que salen a pasear con sus hijos con el objetivo de visitar las colonias (las colonias están señaladas por un panel – ver anexo). Esto pone en evidencia que los gatos representan naturaleza en el medio de la ciudad y pueden constituir un sano entretenimiento y oportunidad de educar a los niños en el cuidado de la naturaleza y de los animales. También pueden tener una aplicación ocupacional, práctica y efectiva en determinados centros educativos o asistenciales.

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

Es por ello que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jarri dezala martxan programa bat boluntario prestatu eta konprometituekin, gaur egungo CES metodoa osatu eta katu kolonien jarraipen formala eta sistematikoa hobetzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a complementar el método CES municipal actual con un programa abierto de voluntariado formado y comprometido para mejorar el seguimiento formal y sistemático de las colonias.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Donostia a 20 de mayo de 2016

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 - IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 - IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

---------------

**II.2.16. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, usai txarrak direla eta.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko maiatzaren 16ean Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Duela zenbait urtetatik, herritarrak udalerrian ematen ari diren usain txarren gertaerez kexu dira. Batez ere, Urumearen Erriberako auzoak, Egia, Intxaurrondo, Gros, Amara eta Zorroagako auzuneetan gailentzen ziren usai txarren kexak... Kexa hauen haritik, aurreko legegintzaldian, 2013-2014an, Ikerketa Olfatometriko bat burutu zen Eusko Jaurlaritza eta Donostiako Udaleko Ingurumen Departamenduaren artean: gertaerak egonkortasun meteorologikoa eta hego haize

**II.2.16. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre los malos olores.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 16 de mayo 2016.

JUSTIFICACIÓN

Hace varios años que la ciudadanía se queja de los malos olores que se respiran en el municipio. Sobre todo, en los barrios de Riberas del Urumea, Egia, Intxaurrondo, Gros, Amara y zonas de Zorroaga. Debido a estas quejas, en la anterior legislatura, más concretamente, entre 2013 y 2014, los departamentos de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento de San Sebastián realizaron un estudio olfatométrico conjunto. Según sus conclusiones, los malos

ahula dagoen egunetan ematen zela ondorioztatu zen eta, hain zuzen, azufrezko konposatuek eragiten zituztela usain txarrok: batez ere dimetildisulfuro, dimetilsulfuro eta karbono sulfuroa. Azterketa toxikologikoak ere egin ziren Osasun Publiko sailetik, usaion kaltegarritasuna aztertzeko. Azkenik, ikerketan hiru iturri aztertu ziren, EDAR, San Markoko zabortegia eta Zikuñagako papertegia, eta usain-gertaera hauek Hernaniko Zikuñagatik (Papelera Gipuzcoana S.A.) zetozela ebatzi zen.

olores se producían los días que había estabilidad meteorológica y viento flojo de componente sur y, concretamente, eran los compuestos de azufre los que los provocaban: sobre todo, el dimetildisulfuro y el súlfuro de carbono. El Servicio de Salud Pública, por su parte, realizó estudios toxicológicos destinados a analizar la posible nocividad asociada a estos olores. En el estudio se analizaron tres posibles fuentes: la EDAR, el vertedero de San Marcos y la papelera de Zikuñaga. Finalmente, se determinó que los olores provenían de la papelera de Zikuñaga, de Hernani (Papelera Guipuzcoana SA).

Hori dela eta, lantalde bat osatu zen Donostiako Udala, Eusko Jaurlaritza eta Zikuñagako ordezkarien artean, jarduerari dagokion ingurumen legeria betetzen bazuen ere, Ingurumen-baimen Bateratuaz haratago, neurri zuzentzaile gehigarriak ezartzeko xedearekin.

En vista de ello, se constituyó un grupo de trabajo formado por el Ayuntamiento de San Sebastián, el Gobierno Vasco y representantes de Zikuñaga, con el fin de implantar medidas correctoras complementarias que fueran más allá de la Autorización Ambiental Integrada, aunque la actividad ya cumplía la legislación ambiental vigente.

Berriki, ordea, ikusi dugu usain txar hauen gertaerak eman direla berriro ere. 2015ean 23 eta 2016ko lehen hilabeteetan, bost. Usain hauek ustez toxikoak ez diren arren, donostiarren bizi kalitatearen ikuspuntutik beharrezkoa da egoera honi irtenbidea ematea.

Sin embargo, recientemente se han vuelto a percibir estos malos olores. En 2015, en 23 ocasiones y, durante los primeros meses de 2016, en cinco. Aunque aparentemente no se trata de olores tóxicos, desde el punto de vista de la calidad de vida de los y de las donostiarras, esta situación precisa una solución.

Eguzki talde ekologistak berak, aurtengo apirilean, Eusko Jaurlaritza eta Donostia, Hernani eta Astigarragako udalei eskatu zien papertegiarekin adostu eta ezarri zitzatela beharrezko hobekuntza tekniko eta produktiboak usain txarrokin behin betikoz amaitzeko.

En abril de este año, el grupo ecologista Eguzki solicitó al Gobierno Vasco y a los ayuntamientos de San Sebastián, Hernani y Astigarraga que, de acuerdo con la papelera, establecieran las mejoras técnicas y productivas necesarias para acabar de una vez por todas con los malos olores.

Gai honetaz batzordeetan Ekologiako

En distintas comisiones, hemos preguntado

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

zinegotzi ordezkariari galdetuta, erantzun zitzaigun azkeneko gertaera hauen berri bazuela Udalak, Zikuñagako papertegia hartu dela jatorritzat, gertaeren erregistroa egiten jarraitu dela eta maiatzaren 2ko astean Eusko Jaurlaritzari eskaera formala egin zitzaiola industriagune honetan inspekzio-bisita egiteko.

sobre este tema al concejal delegado de Ecología y la respuesta que se nos ha dado ha sido que el Ayuntamiento ya conocía estos últimos acontecimientos, que se considera que el origen de los malos olores es la papelera de Zikuñaga, que se sigue llevando un registro de los acontecimientos y que, en la semana del 2 de mayo, se hizo una solicitud formal al Gobierno Vasco para que realizara una visita de inspección a esta industria.

Erantzun egokia deritzogu Udal-gobernuaren aldetik, baina urteetako lanaren ondoren (ikerketa olfatometrikoa, lantaldeak, neurri zuzentzaileak...), uste dugu usain txar hauekin behin betiko amaitzeko konpromisoa eskatu behar zaiela bai Eusko Jaurlaritzari, bai Papelera Guipuzcoanari.

Consideramos que la respuesta dada por el Gobierno municipal es adecuada, pero, en nuestra opinión, teniendo en cuenta el trabajo realizado durante estos años (estudio olfatométrico, grupos de trabajo, medidas correctoras…), se debe solicitar al Gobierno Vasco y a la Papelera Guipuzcoana que adopten el compromiso de acabar definitivamente con estos malos olores.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Eusko Jaurlaritzarekin eta papertegiarekin gutxienez elkarlana egin dezala usain txarren gertaera hauekin amaitzeko beharrezko neurri zuzentzaileak definitu, ezarri eta ebaluatzeko.

Donostian, 2016eko maiatzaren 20an.

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que colabore, al menos, con el Gobierno Vasco y con la Papelera para definir, implantar y evaluar las medidas correctoras necesarias para acabar con estos episodios de malos olores.

San Sebastián, 20 de mayo de 2016

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.17. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostia Lagunkoiaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16ean Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako plan bat da eta bi asmo nagusi ditu: Donostiako adinduen errealitatea agerraraztea eta balioestea, batetik, eta pertsona hauek hiriko bizitzan bete-betean parte har dezaten aukerak sustatzea, bestetik.

Plan honek adinduak gizarte bizitza eta hiriko dinamiketan presente egotea eta haien parte hartzea sustatzen du. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduera, helburu orokortzat adinduen bizi kalitatea hobetzea dutenak, adinduek herritar bezala duten ahalmena baliatuz.

Helburu orokor horretatik eratortzen dira helburu zehatz hauek:

**II.2.17. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre San Sebastián amigable.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en la Sesión Plenaria. La moción es el resultado de la interpelación analizada el 16 de mayo de 2016 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

San Sebastián Amigable es un plan promovido por el Ayuntamiento que tiene dos objetivos principales: dar a conocer y poner en valor la realidad de las personas mayores de San Sebastián, y promover la participación plena de estas personas en la vida de la ciudad.

El Plan promueve la presencia y participación de las personas mayores en la vida social y en las dinámicas de la ciudad.]El plan incluye diversos proyectos y actividades cuyo objetivo general es la mejora de la calidad de vida de los y las mayores, poniendo en valor las capacidades de estas personas como parte de la ciudadanía.

De dicho objetivo general se derivan los siguientes objetivos concretos:

- Adinduak eta haien elkarteak ahalduntzea, parte hartzeko prozesuen bitartez udal politiketan eragiteko. Izan ere, proiektuaren bultzatzaile eta gauzatzaile dira, eta horrela herritar bezala duten eragina baliatuko da.

- Empoderar a las personas mayores y a sus asociaciones para que influyan en las políticas municipales mediante procesos participativos, considerándolas responsables tanto del impulso como de la ejecución del proyecto, y poniendo en valor la capacidad de influir que tienen como parte de la ciudadanía.

- Giza taldeen —pertsona zaharren, gazteen...— eta hiriko eragileen arteko lankidetza, parte hartzeko prozesuan, bereziki belaunaldi arteko harremanak eta ezagueraren transmisioa indartuz. Gizartea sentiberatzea zahartze aktiboaren garrantziaz eta adinduek komunitatearentzat duten balioaz; zahartzearen alde onak ikustaraztea.

- Colaboración entre colectivos –de personas mayores, jóvenes, etc.– y agentes de la ciudad durante el proceso participativo; sobre todo reforzando las relaciones intergeneracionales y la transmisión de conocimiento. Sensibilizar a la ciudadanía sobre la importancia del envejecimiento activo y del valor que tienen las personas mayores para la comunidad; poner de relieve los aspectos positivos del envejecimiento.

- Sail arteko lankidetzaren eta parte hartzeko prozesuaren esperientzia hori baliatzea, hainbat esparrutan proiektuak bideratzeko.

- Aprovechar la colaboración interdepartamental y la experiencia participativa para llevar a cabo proyectos en diferentes ámbitos.

Helburu hauek garatzeko Donostia Lagunkoia Hiri Planaren dokumentua taxutzen parte hartu dute adinduek, haiei lotutako antolakundeek, enpresek, elkarteek, erakundeek eta udal sailetako arduradunek. Horiek guztiek gogoeta, eztabaida eta eraikuntza kolektiboko ariketa batean lan egin zuten aurreko legegintzaldian, Donostian datozen urteetan aurrera eraman beharreko gaiak, helburuak, estrategiak eta ekintzak identifikatuz, gure hiria toki lagunkoiagoa egite aldera.

Para desarrollar estos objetivos, las personas mayores así como las organizaciones, empresas, asociaciones e instituciones relacionadas con ellas y los y las responsables de los departamentos municipales han participado en la elaboración del documento San Sebastián Amigable. Plan de Ciudad. En la legislatura anterior, todos los agentes que acabamos de mencionar participaron en un ejercicio de reflexión, debate y construcción colectiva, para identificar los temas, objetivos, estrategias y acciones que se deberán desarrollar en San Sebastián en los próximos años, con el fin de hacer que nuestra ciudad sea más amigable.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Prozesu aberasgarri eta parte-hartzaile hau egiteko, Partaidetza Sailak bi mekanismo finkatu zituen: Egiaztatze eta Baliozkotze Taldea eta lan-kolektiboaren jardunaldi irekia.

Para llevar a cabo este proceso de enriquecimiento y participación, el Departamento de Participación estableció dos mecanismos: El Grupo de contraste y validación, y la Jornada abierta de trabajo colectivo.

Egiaztatze eta Baliozkotze Taldea dugu partaidetza-prozesua bultzatu zuen talde eragile-mistoa: adineko pertsonez (gutxi gorabehera % 70) eta profesional, politikari eta udal teknikariz (gutxi gorabehera % 30) osatua. Beren ibilbide profesionalagatik eta bizi-esperientziagatik hautatutako 30-40 lagun dira, eta lan-tailerretan ikuspegi orokorra, gai-arloak eta partaidetza-uneak garatu zituzten plana definitzeko.

El Grupo de contraste y validación es el grupo mixto que impulsó el proceso de participación: un grupo formado por personas mayores (aproximadamente un 70 %) y por profesionales, personal político y técnico municipal (aproximadamente un 30 %). Entre 30 y 40 personas seleccionadas por su trayectoria profesional y experiencia vital que debían desarrollar en diferentes talleres de trabajo la visión global, las áreas temáticas y los momentos participativos para la definición del plan.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

2013ko ekainaren 20an goizez egin zen saio irekia, Bulebarrean horretarako bereziki prestatutako karpa batean. Zenbait hilabetez Hiriaren Plana prestatzeko prozesuan elkarrekin lan egin zuten pertsonak aritu ziren topagune horretan lanean (udal korporazioko zinegotziak, Udaleko hainbat departamentutako teknikariak eta beste hainbat herritar ere, tartean). Guztira, 100 lagun baino gehiago.

La jornada abierta se celebró durante la mañana del 20 de junio de 2013, en una carpa habilitada para la ocasión en el Boulevard. Durante varios meses, se reunieron en dicho emplazamiento personas que habían trabajado conjuntamente en el proceso de elaboración del Plan de Ciudad (concejalas y concejales de la corporación municipal, personal técnico de diferentes departamentos del Ayuntamiento y parte de la ciudadanía). Más de 100 personas, en total.

2014-2015ean ere hainbat saio eta ekimen egin ziren talde-eragilearekin, aipagarrienak honako hauek dira:

- Udalinfo-ko langileekin prestakuntza eta hausnarketarako saioak, adinekoenganako adiskidetasun portaerari buruz.
- Laguntzeko batzorde tekniko bat

En 2014-2015 también se llevaron a cabo diversas sesiones y acciones con el grupo motor. Destacamos las siguientes:

- Sesiones de formación y reflexión con el personal de Udalinfo sobre comportamientos amigables hacia las personas mayores.
- Creación de una comisión técnica junto

sortu, hiriko erretiratuen 23 elkarterekin batera. 2014an, guztira, lau bilera egin ziren eta hainbat gai aztertu ziren.
- 2014ean espazio publiko lagunkoien, mugikortasun seguruaren eta adinekoentzako bizitoki aukera berritzaileen tailerrak hasteko aurrelanak burutu ziren eta 2015ean tailerrak egin ziren.
- Komunikazio estrategia propio bat definitu zen Donostia Lagunkoia Planerako eta irudi grafikoa eta euskarriak diseinatu egin ziren.

- Adinekoen elkarteei utzitako lokal eta aretoak egokitzeko obrak hasi ziren.

- Goizaldi programa martxan jarri zen hainbat auzotan.
- Adinekoak etxean bisitatzeko programa indartu zen.
- Farmazia lagunkoien sarea garatu zen.
- Adinekoei haien ingurunean laguntzeko komunitate sare bati buruzko gogoetari eta diseinuari hasiera eman zitzaien.

con 23 asociaciones de jubilados de la ciudad. Celebración en 2014 de cuatro reuniones en las que se trataros diversos temas.
- Realización en 2014 de los trabajos de preparación de los talleres sobre espacios públicos amigables, movilidad segura y opciones innovadoras de vivienda para personas mayores. Los talleres se celebraron en 2015.
- Definición de una estrategia de comunicación propia para el Plan San Sebastián Amigable y diseño tanto la imagen corporativa como de los soportes necesarios.
- Comienzo de las obras de acondicionamiento de los locales y salas cedidos a las asociaciones de mayores.
- Puesta en marcha del programa Goizaldi en varios barrios.
- Refuerzo del programa de visitas a domicilio de personas mayores.
- Desarrollo de la red de farmacias amigables.
- Comienzo del proceso de reflexión y diseño sobre una red de ayuda a las personas mayores en su entorno.

Baina 2015ean emandako gobernu aldaketak eragina izan du Donostia Lagunkoiaren partaidetza ereduan eta talde-eragileak duen garrantzian. Apirilaren 16ko Gizarte Ekintzako kontseilu sektorialean zinegotzi ordezkariak 2016ko aurrekontuen aurkezpena egin zuen. Saio berean, Donostia Lagunkoieko talde-promotorean parte hartu duen elkarte bateko ordezkariak hitza eskatu zuen.

Pero el cambio de gobierno en 2015 ha influido en el modelo de participación de San Sebastián Amigable y en la importancia que tiene el grupo motor. En el Consejo Sectorial del 16 de abril, la concejala delegada de Acción Social presentó los presupuestos de 2016. En la misma sesión, una de las personas pertenecientes a una asociación que participó en el grupo motor del Plan San Sebastián Amigable pidió la palabra.

Pertsona honek zioen aurreko legegintzaldian Donostia Lagunkoian aktiboki parte-hartu

Esta persona afirmaba que varias personas y asociaciones que habían participado de forma

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

duten hainbat pertsona eta elkarte, azken hilabeteetan, lekuz kanpo sentitu direla: Udalak ez diela informazioa helarazten, proiektua geldirik dagoela somatzen dutela, talde-promotorearen rola aldatu dela, parte-hartze zuzena asko murriztu dela, aurreko legegintzaldian eragileekin zegoen interakzioa eta elkarrizketa eten egin direla...

activa en la legislatura anterior en la elaboración del Plan San Sebastián Amigable se habían sentido fuera de lugar: el Ayuntamiento no les facilita la información, perciben que el proyecto está paralizado, que el rol del grupo motor ha cambiado, que la participación directa ha disminuido de manera notable, que la interacción y el diálogo que existía en la legislatura anterior han cesado.

Talde eragilearen kexak eta kezkak direla-eta, maiatzaren 16an, honen inguruan galdetu genion zinegotzi ordezkariari. Hark erantzun zuen talde eragileak arrazoia duela eta ez dela bilerarik egin beraiekin 2015-2016 ikasturtean.

A raíz de las quejas e inquietudes del grupo motor, el 16 de mayo planteamos una pregunta sobre este tema a la concejala delegada. La concejala respondió que el grupo tiene razón y que no se ha celebrado ninguna reunión con ellos en el curso 2015-2016.

Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la gravedad del asunto, la concejala abajo firmante presenta esta MOCIÓN

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Lagunkoieko talde-eragilearekin harremanetan jar dadila denbora epe laburrean eta taldearekin partaidetza eredu aktibo bat berrabiaraz dezala.

1. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que se ponga en contacto con el grupo promotor del Plan San Sebastián Amigable a corto plazo, y que vuelva a poner en marcha un modelo de participación activa con dicho grupo.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat egin dezala 2016-2017 ikasturteari begira, Donostia Lagunkoia garatzeko egingo dituen ekimenak zerrendatuz.

2. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que establezca cronograma de cara al curso 2016-2017, en el que se relacionen las actividades que se van a llevar a cabo para desarrollar el Plan San Sebastián Amigable.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an

San Sebastián, 20 de mayo de 2016

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Olaia Duarte López y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.18. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Gizarte Kontseiluari zor zaion errespetua dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko otsailaren 25ean, EH Bildu eta Irabazi udal taldeek Uliako Mintegi parkearen etorkizunaren inguruko hiritar kontsulta egitea erregistratu zuten. Hiritar Kontsulten Erregelamenduaren 15.2 artikuluak ezartzen duen bezala, Gizarte Kontseiluari dagokio, Erakunde Ekimenekoen kasuan, txostena egitea.

Hartara, apirilaren 21ean, Gizarte Kontseiluak osoko bilkura egin zuen eta Pedro Miguel Etxenike lehendakariak kontsulta egitearen aldeko txosten-proposamena luzatu zuen bertan, Gizarte Kontseiluak onarpena eman

**II.2.18. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el respeto que se le debe al Consejo Social.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios Generales de 16 de mayo de 2016.

JUSTIFICACIÓN

El 25 de febrero de 2016, los grupos municipales EH Bildu e Irabazi registraron la iniciativa para hacer una consulta ciudadana sobre el futuro del parque de los viveros de Ulia. Tal como establece el artículo 15.2 del Reglamento de Consultas, corresponde al Consejo Social elaborar el informe, en los casos de iniciativas institucionales.

De este modo, el 21 de abril, el Consejo Social se reunió en sesión plenaria, y su presidente, Pedro Miguel Etxenike, emitió una propuesta de informe favorable a la consulta. Concretamente, en el informe se detallaba que

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ziezaion, ala ez. Zehatz-mehatz, txostenak zioen “adostasuna dago ... egindako proposamenaren egokitasunaren gainean ... hortaz, bidezkoa da zentzu honetan esklusiboki proposamena bideratzea eta izapidetzea”. Horrez gain txostenak zioenez, “oro har, positiboki baloratzen da herritarrei kontsultatzeko mekanismo horiek martxan jartzea”.

"existe conformidad… en torno a la idoneidad de la propuesta…, por lo tanto, es justo, en este sentido, encauzar y tramitar la propuesta de manera exclusiva". Además, el informe valoraba de manera positiva la puesta en marcha de mecanismos para efectuar consultas ciudadanas.

Osoko bilkuran presente zeuden Eneko Goia alkatea, Duñike Agirrezabalaga partaidetza ordezkariak eta EAJko eta PSE-EEko ordezkariak; guztiek onespena eman zioten aipatutako txostenari oro har, eta ondorioz arestian azaldutakoei ere, bertan kontrako inongo adierazpenik egin gabe. Handik astebetera, ordea, Udalbatzaren apirilaren 28ko osoko bilkuran, Erregelamenduaren 12.1 artikuluak dioen bezala, kontsulta onestea bozkatzea zegokionean, aurkako botoa eman zuten, auzotarrek zein donostiarrek parke garrantzitsu honen inguruan iritzia ematea galaraziz.

En la sesión plenaria, estaban presentes el alcalde, Eneko Goia, la delegada de Participación, Duñike Agirrezabalaga, y las y los representantes del PNV y del PSE-EE, quienes aprobaron el citado informe en su conjunto y, por lo tanto, también lo mencionado anteriormente, sin que en aquel momento hubiera ninguna intervención en contra. Sin embargo, una semana después, en la sesión plenaria del 28 de abril, al someter a votación la aprobación de la consulta, tal y como indica el artículo 12.1 del Reglamento, votaron en contra, impidiendo de este modo a las y los donostiarras expresar su opinión en torno a este parque tan importante.

Begi-bistakoa da gai honi dagokionez, EH Bilduren posizioa, proposamenaren talde bultzatzailea denez hasieratik argia izan baita. Ekimena bideratzerakoan, eta zegokion unean eta moduan azaldu eta defendatu duena publikoki, zein ez.

Es evidente cuál es la posición de EH Bildu con respecto a esta cuestión, por cuanto ha sido el grupo que ha promovido esta propuesta desde el principio y el que, a la hora de su tramitación, la ha explicado y defendido, tanto en público como en privado, en el momento oportuno y en la forma precisa.

Aitzitik EH Bildu taldearentzat benetan kezkagarria izan da Gobernuak eta alkateak berak, ordezkari instituzional diren heinean, erakutsi duten jarrera iluna: kontsulta galarazteaz gain, esan eta egiten dutenaren arteko kongruentzia faltagatik eta Gizarte Kontseiluko ordezkariei zein Gizarte Kontseiluari berari agertu dieten begirune

El grupo EH Bildu considera realmente preocupante la actitud poco transparente mostrada por el Gobierno y por el propio alcalde, como representantes institucionales, no sólo por el hecho de impedir la consulta, sino por la falta de congruencia entre lo que dicen y lo que hacen, y por la falta de respeto mostrada hacia las y los representantes del

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

faltagatik. Tamainako egoeraren aurrean, Interpelazio zuzena egin zitzaion Eneko Goia Alkateari, Udalbatzaren aurrean azalpenak ez emate arren, maiatzaren 16ko Zerbitzu Orokorretako Batzordera bideratu zuena.

Consejo y hacia el propio Consejo. Ante esta situación, presentamos una interpelación directa al alcalde, y aunque Eneko Goia no dio explicaciones ante el Pleno, la derivó a la Comisión de Servicios Generales del 16 de mayo.

Talde honek jaso ditu eragileen haserrea eta ulertezina eta horrela helarazi zitzaion Alkateari Batzordean. Berak, aldiz, iritziok gutxietsi zituen. Horrez gain, bertan azaldutakoak, aldiz, errespetu faltari buruzko susmoak sendotzeko izan dira eta lehendik izandako gertakizunei gehitu behar zaizkie. Gizarte Kontseilua, egun hirian dugun herritarren partaidetza organorik gorena da eta 2015eko apirilaren 30ean Udalbatzak aho batez onartu zituen araudien berritze eta erabakien bidez, egun dituen funtzioetan gaztea dela esan dezakegu. Beraz, gertatutakoa oso aurrekari kaxkarra eta onartezina da, etorkizun iluna marrazten duena, instituzio eta herritarren arteko harremanen oreka nolakoa izan behar den markoaren baitan.

Varios agentes del Consejo nos han trasladado su malestar y su incomprensión por esta cuestión, y así se lo hicimos saber, en comisión, al alcalde. Sin embargo, él menospreció estas opiniones. Además, las explicaciones que se dieron en comisión han servido para reforzar el recelo de que no se respeta al Consejo, y esto es algo que hay que sumar a otros sucesos previos. El Consejo Social es el máximo órgano de participación ciudadana que tenemos en la ciudad, y podemos afirmar que es joven en cuanto a las funciones que actualmente tiene encomendadas, ya que son consecuencia de las actualizaciones de los reglamentos y de las resoluciones que el Pleno, por unanimidad, aprobó el 30 de abril de 2015. Por tanto, lo sucedido constituye un mal e inaceptable precedente, que dibuja un futuro incierto, contrario al marco que establece el equilibrio que debe existir en las relaciones entre instituciones y ciudadanía.

Benetako partaidetza sustatzeko dinamika okerra da, posizio bat sinestarazi, ondoren beste baten arabera jokatzeko, agintea duenaren aldetik. Kontseilua eta iritzia eman behar duenari, hori eskatu beharrean, mutu geratuta, eztabaida eta azalpen zintzo, argi eta gardenek sor dezaketena lapurtuta geratu dira. Eta, ondorioz, ulergarria da Gizarte Kontseilua osatzen duten kideen artean sortu diren egoneza, kezka, haserre, harridura, eta beste iritzi edo pentsamendu negatiboak, bakoitzak egoerari buruz egin duen

Si lo que se pretende es impulsar una participación real, es una dinámica equivocada, por parte de quien tiene el poder, hacer creer una posición y actuar conforme a otra. En lugar de pedir consejo y opinión a quien tiene encomendada esta tarea, han enmudecido y han hurtado aquello que podría haber surgido como consecuencia de un debate y de unas explicaciones honestas, claras y transparentes. Por tanto, es comprensible el malestar, la preocupación, el enfado, la sorpresa y las opiniones o pensamientos negativos que han

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

irakurketaren arabera. Guzti horrek etorkizunean izan ditzakeen ondorioei erreparatu beharko diegu.

surgido entre las y los integrantes del Consejo Social, en función de la lectura que cada uno de ellos hace con respecto a esta situación. Tendremos que estar atentos a las consecuencias que todo ello puede tener en el futuro.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

Por lo expuesto, presentamos la siguiente MOCIÓN:

- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari aurrerantzean Gizarte Kontseiluarekiko begirune osoz eta zintzotasunez jokatuko duela.

- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Kontseiluak egin behar duen lanari begira eta eman behar dituen iritziei begira, ezagutu behar dituen elementu zein baliabide guztiak eman edo jakinaraziko dizkiola.

- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en adelante, actúe con total respeto y honestidad para con el Consejo Social.

- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que proporcione o comunique al Consejo Social todos aquellos elementos o recursos que necesite para desempeñar su labor y dar su opinión sobre las cuestiones que le conciernen.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Donostia, 2 de mayo de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Alkate-Udalburuak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Alcalde-Presidente, D. Loïc Alejandro y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.19. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udalak iragarki ofizialak argitaratzearen gainekoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiko 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, maiatzaren16an Zerbitzu Orokorren Batzordean Udalak iragarki ofizialak argitaratzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Legeak jartzen duenez, nahitaezkoa da dokumentu jakin batzuk (plangintza tresnak, ordenantzak eta arautegiak, besteak beste) tokian-tokian zabaltzen den hedabide batean, behintzat, argitaratzea. Helburua da, hain zuzen ere, dokumentu horiek herritarren esku edo jendaurrean jartzea, edo dokumentuok behin betiko onetsi direla jakinaraztea. Horrela, hartutako erabakiak gardenak izango dira, eta herritarrek aukera gehiago izango dute eragiten dieten edo eragin diezaieketen arauen gainean esku hartzeko, alegazioak aurkezteko aldian.

Argitalpena ez da, beraz, izapide formal hutsa,

**II.2.19. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la publicación de anuncios oficiales por parte del Ayuntamiento.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la publicación de anuncios oficiales por parte del Ayuntamiento. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios Generales el pasado 16 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

La Ley establece la obligatoriedad de publicación de determinados documentos (instrumentos de planeamientos, Ordenanzas, Reglamentos, ...) entre otros, en al menos un medio de comunicación de difusión en el ámbito. El objeto de tal obligación es precisamente dar a conocer a la ciudadanía o la exposición al público del citado documento o dar a conocer la definitiva aprobación del mismo. Es decir, es un mecanismo que redunda en la transparencia de las decisiones adoptadas y refuerza las posibilidades de participación de la ciudadanía en general sobre normas que les afectan o que les pueden afectar en período de alegaciones.

No se trata, por tanto, del cumplimiento de un

garrantzi handiko kontua baizik. Horregatik, alderdi hori ez bada behar bezala betetzen, baliteke araua bera baliorik gabe gelditzea, onesteko eskatzen diren baldintzei eragiteagatik.

mero trámite formal, sino de un tema de importancia trascendental, tanto que los defectos en el cumplimiento de la misma pueden tener efectos sobre la validez de la propia norma; al incidir sobre requisitos exigidos para su aprobación.

Kontu garrantzitsua izanagatik ere, zenbait oker ikusi ditugu: kasurako, gutxienez bitan, bi aldiz argitaratu da iragarki bera hedabide berean. Horrek ez dio kalte egiten arauaren izapideen legezkotasunari, jakina, baina egia da halako okerrek desitxuratu egiten dituztela izapide administratiboak, alegazioak aurkezteko epea azken argitalpenetik aurrera hasten baita zenbatzen. Bestalde, kudeaketa txarraren seinale ere bada, altxor publikoari alferrikako gastua eragiten diolako.

A pesar de la importancia del tema, hemos podido constatar distintos errores. Así, en al menos dos ocasiones, se ha publicado dos veces el mismo anuncio en el mismo medio de comunicación. Es evidente, que dicha cuestión, no afecta a la legalidad de la tramitación de la norma; pero no es menos cierto que este tipo de errores originan distorsiones en la tramitación administrativa, en la medida en que el plazo para la presentación de alegaciones comienza a computarse desde la última publicación. Por otra parte, supone una deficiente gestión en la medida que irroga un gasto innecesario para el erario público.

Horrez gain, ikusi da zenbait kasutan ez datozela bat iragarkiaren izenburua eta edukia, eta horrek bai, horrek espedientea oker izapidetzea eragin lezake. Gainera, desitxuratu egin litzake izapide administratiboak (beste argitalpen bat egin beharko bailitzateke), eta altxor publikoari aparteko gastua eragin liezaioke, izapidetzea ez delako eraginkorra izan.

También se han detectado casos de errores de divergencia entre el título del anuncio, y el contenido del mismo. En este caso, si se puede afectar a la correcta tramitación del expediente; además de suponer una distorsión en la tramitación administrativa (exigiría una nueva publicación) y una nueva ineficiencia en la tramitación, con repercusión económica para el erario público.

Halaber, ikusi dugu aginduzko iragarkia argitaratu ez izanak gai bat Udalbatzaren gai zerrendatik kentzea eragin duela (apirilean) eta horrek atzerapena sortu duela.

Del mismo modo, nos hemos encontrado con que la ausencia de publicación del preceptivo anuncio ha supuesto incluso la necesidad de tener que retirar un asunto del Orden del día del Pleno (en el mes de abril) con el consiguiente retraso.

Alkateari horren gainean galdetu eta Lehendakaritzako eskuordedunak erantzun zigun salatutako akats mota batean, behintzat,

Interpelado al respecto el Alcalde, nos contestó el delegado de Presidencia, que al menos en uno de los tipos de errores denunciados, el

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

komunikabidearena berarena izan zela akatsa, eta, beraz, Udalari ez zitzaiola batere dirurik kostatu hura zuzentzea. Ez zuen erantzun, ordea, azalpen hori zuten guk aipatutako beste bi akats motek ere (iragarki bat bera behin baino gehiagotan ateratzea komunikabide batean eta iragarkiaren titulua eta edukia bat ez etortzea), eta, guk ekimen hau aurkeztu arte, behintzat, erantzun gabe jarraitzen du zinegotzi eskuordedunak.

Galderari erantzutekoan, beste gauza batekin ere harritu gintuen zinegotziak: iragarkiekin akats asko izaten ari direla-eta, iragarki ofizialak argitaratzeko gestioak egitea kanpora ateratzea erabaki duela Udal Gobernuak. Alegia, beste lan bat gehiago aterako dela kanpora eta, seguruenera, diru gastua handitzea ekarriko duela horrek.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldearen KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio eman behar diren jarraibideak emateko eta hartu behar den ardura profesionala hartzeko horrelako akatsik ez izateko berriz.

2.- Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio ez azpikontratatzeko, zerbitzua kanpora aterata, iragarkiak argitaratzeko gestioa.

Donostian, 2016eko maiatzaren 20an

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

error partió del propio medio, y que por tanto no supondría ningún coste para el erario público; sin embargo quedó en contestar si dicha explicación se extendía a los dos tipos de errores referidos (repetición en la publicación del mismo anuncio en el mismo medio, discordancia entre la titulación y el contenido del mismo); algo que, hasta la fecha de presentación de la presente iniciativa, el delegado no ha cumplido.

En dicha constestación el delegado, ante el cúmulo de errores que se están produciendo, nos sorprendió con la decisión del Gobierno Municipal de externalizar la gestión de publicación de los anuncios oficiales. Es decir, nos encontramos ante una nueva externalización, con el presumible aumento de coste económico correspondiente.

Por todo ello el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a dar las instrucciones correspondientes y a poner el celo profesional adecuado para que no se repitan errores como los denunciados.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a no subcontratar la gestión de publicación de anuncios, externalizando el servicio.

Donostian, 2016eko maiatzaren 20an

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.20. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Zuberoa plaza berritzeko proiektuaren gainekoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Zuberoa plaza berritu eta haurrentzako den gunea tapatzeko proiektua dela eta, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordeak azaroaren 16an egindako interpelazioaren ondorioz. Mozioa maiatzaren 16ko Gune Publikoen Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hirian doako gune estaliak izatea da herritarrek gehien eskatzen duten gauzetako bat. Hori dela eta, batzorde ez-iraunkor bat

**II.2.20. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el Proyecto de Remodelación de la Plaza Zuberoa.**

“Ricardo Burutaran Ferré, Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre el Proyecto de Remodelación de la Plaza Zuberoa y cubrimiento de la zona infantil de la misma. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Obras y Servicios Públicos el pasado 16 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

Una de las cuestiones más demandadas por la ciudadanía es la de espacios cubiertos gratuitos. En este sentido nuestro grupo realizó

eratzea proposatu zuen gure taldeak, talde guztien ordezkariak izan eta auzo elkarteak ere gonbidatuko lituzkeena, hiriko toki batzuetan toki estali batzuk izatea aztertu eta proposatzeko bidea izateko. Zoritxarrez, oposizioko talde guztien babesa jaso zuen proposamenak, baina ez hala gobernuarena, eta, ondorioz, ez zen onartu.

una propuesta para la creación de una Comisión no Permanente, con presencia de todos los grupos y con invitación a las asociaciones de vecinos y vecinas, que permitiera estudiar y proponer propuestas de espacios cubiertos en distintas zonas de la ciudad. Lamentablemente, tal propuesta recibió el apoyo de todos los grupos de la oposición pero no del gobierno; por lo que fue rechazada.

Hala ere, lortu genuen zuzenketa eske bat onartzea, gure taldeak aurkeztu zuena uztailean onartutako Inbertsio planaren gainean. Hau da, 40.000 euroko kontu-sail bat izatea Zuberoa plaza berritu eta haurrentzako den gunea tapatzeko proiektua egiteko.

Sí conseguimos, sin embargo, que saliese adelante una enmienda, presentada por EH BILDU, al Plan de Inversiones, aprobado en el mes de julio del presente que contiene una partida de 40.000 euros para la realización del proyecto de remodelación de la Plaza Zuberoa y cubrimiento de su zona infantil.

Kontuan izanik hirian toki estali batzuk izateko eskaera handia dagoela, eta aurtengo inbertsio proiektuarentzat onartutako zuzenketa eske bat dela, berehala egin beharrekoa dela irizten diogu.

Teniendo en cuenta la alta demanda de espacios cubiertos en la ciudad, y que se trata de una enmienda aprobada para el Proyecto de Inversiones del año en curso, consideramos la misma urgente.

Hori dela eta, azaroan kontrol mozio hau aurkeztu genuen, eta aho batez onetsi zen: “Donostiako Udalbatza Osoak Udal Gobernuari eskatzen dio urte amaieran abian jar dezala Zuberoa plaza birmoldatzeko eta bertako haurrentzako gunea estaltzeko proiektua agintzeko prozesua, uztaileko osoko bilkuran onetsitako Inbertsio Planean jasotakoa eta adostutakoa”.

Por eso en el mes de noviembre presentamos la siguiente moción de control que fue aprobada por unanimidad: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, antes de final de año, ponga en marcha el proceso para encargar, y en su caso encargue, el Proyecto de remodelación y de la Plaza Zuberoa y cubrimiento de la zona infantil de la misma; contemplado y acordado en el Plan de Inversiones aprobado en el Pleno de Julio”.

Denbora luzea igaro da orduz geroztik, eta ez dugu berririk izan Zuberoa plaza birmoldatzeko eta estaltzeko proiektu hori agindu izanari buruz.

A pesar del tiempo transcurrido, lo cierto es que no hemos tenido constancia de novedades con respecto al encargo del citado proyecto de remodelación y cubrimiento de la Plaza de Zuberoa.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Udal Gobernuari horri buruzko interpelazioa egin genion eta hark erantzun zigun hiru arkitektura talderi eskatu zizkiotela proposamenak, azkena martxoan aurkeztu zutela eta 15 egun igaro baino lehean zutela horiek batzorde teknikoan aurkezteko asmoa.

Interpelado el Gobierno Municipal al respecto nos contestó que se habían encargado a tres equipos de arquitectura la presentación de propuestas, que la última había sido presentada en el mes de marzo y que tenían intención de presentar las mismas en el plazo de 15 días en la Comisión Técnica.

Harritzekoa bada, gutxienez, kontu honen gainean ebazteko hainbeste denbora behar izatea, bai eta orain arte horri buruzko informaziorik batere ez ematea ere. Eta hori, Udalbatzak ekimena aho batez onartu zuenik azaroan.

No puede menos que sorprender la demora que está teniendo la resolución de esta cuestión; y el hecho de que no se nos haya dado información alguna hasta la fecha. Todo ello a pesar de que la citada iniciativa fue aprobada por unanimidad en el Pleno del mes de noviembre.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldearen KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkez diezazkiela, ahalik azkarrena, taldeei eta auzoari Zuberoa plaza berritzeko eta haurrentzako den gunea estaltzeko dauden proiektuak eta ideiak, eta, auzokoen iritzia zein den jakin ondoren, agindu dezala, egin beharreko lehiaketa egin ondoren, lan horiek egitea.

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a presentar, a la mayor brevedad, a los grupos y al barrio los proyectos o ideas disponibles sobre la remodelación de la Plaza de Zuberoa y de cubrimiento de la zona infantil de la misma; y a que una vez conocida la opinión del barrio se encargue, previo concurso correspondiente, la ejecución de las mismas.

En Donostia a 20 de mayo de 2016

Fdo: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**II.2.21. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Loiolako "Urdintzu" zubiaren izena dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Ogasuna Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 14an Gune Publikoen Batzordean hizpide izan zen Loiolako "Urdintzu" zubiaren izena, Udalbatzan urriaren 27an ezagutarazi genuen moduan, Loiolako kuarteletara pasatzeko zubian kartel berria jarria zegoelako: "Puente de Alfonso XIII" zioena, eta hiriko armarria izan beharrean Espainiar Estatuarena zuena. Hau da, berezko izena islatzen ez zuen, hizkuntza irizpideak betetzen ez zituen eta Donostiako armarria jasotzen ez zuen kartela.

**II.2.21. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el nombre del puente "Urdintzu" de Loiola.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La moción trae causa de la interpelación presentada en la Comisión de Hacienda de 16 de mayo de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Uno de los temas tratados en la Comisión de Espacio Público celebrada el 14 de diciembre pasado fue la denominación del puente "Urdintzu" de Loiola, puesto que, como hicimos saber en esta misma sala de reuniones el día 27 de octubre, había aparecido un cartel que antes no existía en el puente que conduce a los cuarteles de Loyola: "Puente de Alfonso XIII", que lleva impreso el escudo del Estado español, en lugar de llevar el de la ciudad. Es decir, el cartel no reflejaba la denominación correspondiente, no cumplía los criterios lingüísticos en vigor y no mostraba el escudo oficial de San Sebastián.

Horrek guztiak hainbat udal araudi urratzen zituenez, eta alkatea bera horren jakitun izan arren, abenduaren 4an horri buruzko interpelazioa egin genuen. Hari erantzunez, batzordean bertan zinegotzi ordezkariak azaldu zuen bezala, Loiolako zubi horrek “Urdintzu” izena du, hala jarri baitzion Donostiako Udalak 1998an. Horrekiko koherentziaz jokatuta, zubiari dagokion kartela jarrarazi zuen Udal Gobernuak, berezko izena eta Donostiako armarria txukun erabiliz.

Todo ello suponía una infracción de varias normativas municipales y, aunque el alcalde ya estaba al corriente de la situación, el 4 de diciembre presentamos una interpelación. En respuesta a esta iniciativa, el concejal delegado explicó en la comisión que el nombre de ese puente de Loiola era “Urdintzu”, denominación otorgada por el Ayuntamiento de San Sebastián en 1998. En consecuencia, el Gobierno municipal hizo poner en el puente el cartel que le corresponde, con su verdadero nombre y con el escudo de San Sebastián.

Tamalez, pasa den maiatzaren 2an Espainiar Estatuko Defentsa Ministerioak berriro ere zubian edozer egiteko lizentzia balu bezala jokatu eta abenduko kartelak biderkatu ditu, oraingoan bat jarri ordez, bi jarri baititu, eta aurrekoaren ezaugarriak errepikatuz: zubiko jatorrizko izena gabe, Donostiako armarria gabe eta Donostiako hizkuntza irizpideak bete gabe. Horren ondorioz, alkateari berari interpelazioa egin genion, maiatzaren 16ko Ogasuna Batzordean erantzun zuena.

Por desgracia, el pasado 2 de mayo, el Ministerio de Defensa del Estado español ha vuelto a actuar como si el puente fuera suyo, duplicando, además, el número de carteles, en diciembre colocó uno y, en esta última ocasión, dos, con las mismas características que el primero: no refleja el nombre original del puente, ni el escudo de San Sebastián, y tampoco cumple los criterios lingüísticos en vigor en San Sebastián. A causa de ellos, interpelamos al señor alcalde, que nos respondió en la Comisión de Hacienda del 16 de mayo.

Alkatearen azalpenak egungo testuinguru politikoan oinarritu ziren: Espainia Estatuko Gobernuak funtziotan daraman denbora luzea, eta egoera hori are gehiago luzatuko dela. Ondorioz, Loiolako kuartelak husteko eta uzteko zailtasunak ere luze doazela, eta horrek zubiari ere eragingo diola. Besterik ez.

Las declaraciones del señor alcalde se basaron en el actual contexto político: el largo tiempo que lleva en funciones el Gobierno del Estado español, y que la situación se prolongará aún más. Por tanto, que las dificultades para desocupar y desalojar el cuartel también van para largo, lo que influye en el puente. Sin añadir más.

Jabegoa auzitan sartu gabe, Urdintzu zubia Urumea ibaiaren gaineko eraikuntza da. Eraikuntzetan kartelak jartzeko lizentziak Udalak ematen ditu, Hirigintzako araudiari jarraiki. Jasotako azalpenetatik ondoriozta

Sin entrar a considerar a quién pertenece, el puente Urdintzu es una construcción sobre el río Urumea. Es le ayuntamiento el que otorga las licencias para colocar carteles en los edificios, de acuerdo con la normativa

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

daitekeen moduan zubian egun dauden kartelak lizentzia gabe jarri dira.

urbanística. Tal y como se deduce de las explicaciones recibidas, los carteles se ha colocado sin la correspondiente licencia.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

*Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Urdintzu izeneko zubian dauden kartelak kenarazteko, lizentzia gabe jarri baitira, udal arauak urratuz.

* El Ayuntamiento Pleno pide al Gobierno municipal que haga retirar los carteles colocados en el denominado puente Urdintzu de Loiola, por haber sido emplazados sin licencia y vulnerando la normativa municipal.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an

En San Sebastián, a 20 de mayo de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. José María Murguiondo Casal, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.22. Kontrol mozioa, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA taldeek batera aurkeztua, Turista-olde handiko gunea dela eta.**

“EH Bildu taldearen bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak eta Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten dute, Turista-olde handiko gunea dela eta, UDALBATZAn azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko apirilaren 18ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aldez aurretik jaso eta agertu nahi dugu ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuen desadostasuna Espainiako Gobernuak onetsi eta Gorte Orokorrek berretsi dituzten neurriekin, hau da, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuan jasotakoekin —aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak—. Beren iritziz ideologiazko irizpideen ondoriozkoak dira, ez dute funts teknikorik, ezta ekonomikorik ere, eta oraingo merkataritzaren arau-esparrua hondatu dezakete.

Gainera, ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuen ustez gure autonomia-erkidegoan indarrean dagoen arauteriak irekiera-ordutegi nahiko zabalak uzten ditu, gure erkidegoko edozein eskualdetan egon daitekeen eskaria asetzeko bestekoa. Eta hori ez da bakarrik sindikatuen ustea, bai merkatarien elkarteek, bai kontsumitzaileen elkarteek hala ziurtatzen baitute. Aitzitik, turista-olde handiko guneak izendatzea bide maltzurra izan daiteke, turisten eskariei edo kontsumitzaileen

**II.2.22. Moción de control conjunta presentada por los Grupos EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA sobre zonas de gran afluencia turística.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del Grupo EH Bildu, y Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN para su debate en el PLENO sobre la zona de gran afluencia turística. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada en la comisión de personas del 18 de abril de 2016

JUSTIFICACIÓN

Como cuestión previa, queremos recoger y trasladar la disconformidad de los sindicatos ELA, CCOO, UGT y LAB con las medidas aprobadas por el gobierno Español y ratificada por las Cortes Generales, contenidas en el Real Decreto-Ley 20/2012 de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, que responde a criterios ideológicos carentes de solvencia técnica y económica y que puede destrozar el marco regulatorio actual en materia de comercio.

Ademas hacemos nuestro el pensamiento de los sindicatos ELA, CCOO, UGT y LAB para quienes la regulación existente en nuestra Comunidad Autónoma, permite una apertura suficiente para atender cualquier demanda Comercial en cualquier zona de nuestra Comunidad, hecho este avalado tanto por asociaciones de comerciantes como de consumidores. De hecho, las Zonas de Gran Afluencia Turística a efectos Comerciales se puede convertir en una vía perversa, para

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

beharrizanei erantzuteko baino, azalera handiko saltokien asmoak betetzeko. Izan ere, saltoki handiek eraginpeko barrutietan arauak ezarri ditzakete, igande eta jai-egunetako merkataritza-ordutegiak erabat liberalizatu ditzakete. Nolanahi ere, helburua gure oraingo gizarte-eredua eta kontsumo-ohiturak aldatzea da, eta horien partez beste eredu bat ezarri merkataritza-kate handiei baino beste inori mesede egiten ez diona. Halaxe da, denda txikiei eta ertainei kalte larria egingo zaie, eta ixteko zorian geratuko dira. Horrez gain, merkataritzako langileen lan-baldintzak ere okertuko lirateke, gehienetan lanaren eta familiaren bizimoduen kontziliazioa eragotziz.

atender, no a la demanda turística, ni a las necesidades de los consumidores, influyendo negativamente en la competitividad de los comercios minoristas, sino a la demanda de las grandes superficies para establecer normas de su zona de afluencia y liberalizar totalmente los horarios comerciales en domingos y festivos. Con todo, se intenta cambiar nuestro modelo social y de consumo actual, por otro que solo beneficia a las grandes cadenas comerciales, perjudicando gravemente al pequeño y mediano comercio y empujando a la desaparición de éste . Además de lo anterior, se redundaría en el empeoramiento de las condiciones de trabajo de las y los trabajadores de comercio vulnerando además en la mayoría de los casos la conciliación de la vida familiar y laboral de las y los trabajadores del sector.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Horregatik guztiagatik, eta alde batera utziz Donostiako Udalak turista-olde handiko gune bat arautzeko izan dezakeen beharra, erabateko liberalizazioak ekarriko lukeen arau gabetzea ekiditeko; ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuek beren desadostasuna agertu nahi dute 2016 urterako harturiko erabakiarekin. Hona hemen beren arrazoiak, Irabazi Donostia eta EH Bildu taldeok Udalbatzara ekarri nahi ditugunak:

1. Sostenguari dagokionez: 2015eko turismo-olde handiko gunea zedarritzeko ekimenak gehiengo baten adostasuna lortu zuen, oraingo erabakiak lortu duena baino nabarmen handiagoa.

2. Moduei dagokienez: aurreko erabakia hartu baino lehen, entzunaldia eman zitzaien sindikatuei eta merkatarien elkarteari. Urtetan buru-belarri jardun dute beraiek

Por todo ello, más allá de la obligatoriedad del Ayuntamiento de Donostia de regular una zona de afluencia turística, en aras a evitar la consecuencia de liberalización total que conllevaría la desregulación, los sindicatos reseñados quieren hacer reflejar su disconformidad con la decisión adoptada para el año 2016, basada en los motivos que siguen, y que los grupos EH Bildu e Irabazi Donostia trasladamos al Pleno:

1. En cuanto al apoyo: la delimitación de la zona de gran afluencia turística del año 2015 obtuvo un consenso muy mayoritario y manifiestamente más amplio que la decisión actual.

2. En cuanto a las formas: para la anterior decisión se dio audiencia a las centrales sindicales y a la asociación de comerciantes que durante años han desarrollado y siguen desarrollando una

merkataritza-ordutegien status quo-ari eusten. Oraingo honetan hitzordua ere, ez diete eman.

3. Muinari dagokionez:

• Lehendabizi. Eraginpeko esparrua Bretxara eta Zurriolara hedatzeko benetako argudiorik ez dute eman. Argudiatu den arrazoi bakarra surf eskolei legezko estaldura ematea da, igande eta jai-egunetan ireki ahal izateko. Baina horrekiko esan behar da eskola horiek ez dutela inolako ordutegi-murriztapenik, ez jardueraren aldetik, ez baitira merkataritzakoak, ez tamainaren aldetik. Eta hori hala frogatua izan da orain dela zenbait urtetatik hona horrela aritu direlako.

• Bigarren. Udaletik bertatik jaso duten informazioaren arabera, 150 m²-ko lokalak 1etik 15era ugalduko dira; hortaz, bestelako irekiera-politika duten kate multinazionalak barruti horretara lekualdatzeko arriskua biderkatuko da.

• Hirugarren. Bretxako merkatalgunean badaude kate multinazional batzuk, beste autonomia-erkidego batzuetan igande eta jai-egunetan irekitzen dutenak. Hori dela-eta, ez dago esaterik merkatalguneak berak badaukala arauturik igande eta jai-egunetan irekitzeko debekua, zeren denok dakigunez marka handiek arau hori

labor muy importante para el mantenimiento del status quo en el tema de horarios comerciales. En esta ocasión, ni siquiera se les ha citado.

3. En cuanto al fondo:

• En primer lugar, no han sido esgrimidos argumentos de peso para ampliar la zona de afluencia a la Bretxa y la Zurriola. El único motivo aducido para esa ampliación, residía en dar cobertura legal a que las escuelas de surf pudieran abrir en domingos y festivos. A este respecto, señalar que, ni por su actividad (no encuadrable en el comercio), ni por su tamaño, dichas escuelas tienen restricción horaria alguna para su apertura en domingos y festivos, lo que se viene demostrando por el hecho de que ya lo vienen haciendo durante varios años.

• En segundo lugar,según información que se les ha facilitado en el propio Ayuntamiento, por el hecho de que se amplia de 1 a 15 el número de locales con una superficie superior a 150 m², lo que multiplica el riesgo de que cadenas multinacionales se implanten en la zona con una política de apertura distinta.

• En tercer lugar, porque el centro Comercial de La Bretxa, ya cuenta en su seno con varias cadenas multinacionales que ya abren en domingos y festivos en otras comunidades. A este respecto, no cabe argumentar que el propio centro comercial tiene regulada la prohibición de abrir en domingos y festivos, pues todos sabemos que el poder de las grandes marcas puede cambiar esa regulación

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

aldatzeko ahalmena badutela, nahikoa dute beste merkatalgune batera aldatuko direla mehatxu hutsa azaltzearekin.

Hori dela eta, hauxe da Irabazi Donostia eta EH Bildu taldeek aurkezten duten

MOZIOA

Donostiako Udalbatzak, Udal Gobernuari eskatzen dio, Donostia udalerriko turista-olde handiko gunea izendatzeko proposamen berri bat egiteko, eta horretarako, neurriak eragindako eragile guztiekin hitz egin eta adosteko.

Donostian, 2016ko maiatzaren 20a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

con la mera amenaza de moverse a otro centro comercial.

